GIDARIAREN OKERRA

GOTZON BARANDIARAN

Gotzon Barandiaran

Gidariaren okerra

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2015 Gotzon Barandiaran
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2015eko azaroa
Edizio hau: 2015eko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

TRUMAN CAPOTE: Connor andreari deitu diot. Maryleeri. Elkarrizketa luzea izan dugu...

JAKE (erne): Bai?

TC: Gertatu den guztia kontatu dit...

JAKE: Ez, ez dizu kontatu! Zer arraio kontatuko zizun!

TC (haren erantzunaren zakarkeriaz asaldaturik): Baina Jake, haren ustez...

JAKE: Bai. Zer esan du?

TC: Istripua izan zela.

JAKE: Eta zuk sinetsi?

TC: Esan didanetik, hori dirudi atera daitekeen ondorio bakarra.

JAKE: Berak ez daki zer gertatu zen.

TRUMAN CAPOTE

Eskuz landutako hilkutxak

1

Arantza Ojanguren naiz, gerra argazkilaria, eta jada sendabiderik ez duen glaukoma dut begietan. Nire argazkiak *The New York Times, The Guardian*, *The Washington Post*en argitaratu dituzte. *Chris Hondros*, *Picture of the year international*, *Infinity Awards* sariak irabazi ditut, erakusketak MoMAn eta Berlingo Guggenheimen. Hilabete gutxiren buruan erabat itsutuko naiz, aurrez mendiotan egunero erasotzen gaituzten hegazkinetako batek akabatzen ez banau. Bizitza zoragarria da. Zelalek ez dit fusila hartzen uzten. Tiroa etsaiari beharrean, burkideren bati joko niokeela diost, hartzeko atseden ezkutalekuan, martiriek lagundu bai baina ez dutela gerrarik irabazten.

Hilabeteak daroatzat esperoan, galduko dudan ikusmenari buruzko hausnarrean, lehertzear. Erabakia hartu dut: Heriotza egiaren alde baliatu gura izan zuen taxi gidari batek asmaturiko bahiketan zelan parte hartu nuen kontatuko dut. Horixe nahiko zuen Bitorrek *ez dezala beste inork gure izenean kontatu*.

Sano gatxa egingo zait, badakit, mende erdia betetzear dagoen nire bizitzan kamera erabili izan baitut

nagusiki nituenak kontatzeko bide. Argazki bilduma bat eskuartean hasi naiz aspaldian buruan idatzita nekarrena papereratzen. Gogoratzeko premia dut. Nire argazkiek osatzen duten bildumako aurpegiok itzaltzen hasi zaizkidalako erabaki dut Zack Vicenteren bahiketa kontatzea.

Gauza oso gutxi ikusten ditut argi, zenbait oroitzapen, gero eta lausoago, gero eta nahasiago. Iragana ahantzi dezadan baino lehen, oroitzapenok berbetara ekartzeko deliberoa hartu dut. Kontua da argazkilari nintzela egindako erretratu haietako pertsona bakoitzarekiko zorra sentitzen hasi nintzela hona iritsi bezain laster, bonbek, tiroek, lozorroan nuena supituki esnarazi zidatela, nire oharkabean. Bitor, Saioa, Dolores, Flavia, ezin dut desager daitezen utzi. Diotenez norberarentzat baino ez da ezinbestekoa amesten duena kontatzea. Sinistuta nago norberari gertatutakoak arrotzei eta ezezagunei kontatzea dela ezinbestekoa. Eta horixe egingo dut neuk ere, kontatu.

Ustez loturarik ez duten esaldiz betetako kaiera izango dut gidoi. Atzera begira ohartu naiz izua niola neure buruari kontuak ahoz gora eskatzeari, kolkoari xuxurlatzen nizkionak paper batean irakurtzean sentituko nuenaren beldur nintzela. Argazkiak ziren nire

egunerokoaren bozeramaile, kamerak nituen idazluma, nire erretratuak askoren izenean ari ziren idazten.

Memoria errazago akordatzen da irudiekin.
Berbak ez ditugu jaio ziren bezala errepikatzen.
Argazki batek mila hitzen balioa du bezperan,
deus ez biharamunean.

Halako gogoetak idazten nituen, esaldi bakarrekoak gehienak, esaldi alferrak bezain zorrotzak, koldarrak, beste esaldi batzuekin batera kontakizun oso bat osatzeko beldurrez beteak. Edo, neure buruari gezurra irentsarazita, zehatzak, denbora galtzerik onartzen ez zutenak. Gerran bizitakoen argazkiak egiten nituen, zoriontzen ninduten, saritzen, laudatzen. Argazkiak nahikoa lirateke bahiketa, hasi eta buka, sekuentziaz sekuentzia, berben behar barik kontatzeko. Baina itsutzear nago, ez dut idaztea beste irtenbiderik.

Zerrendak egin ditut, eskemak baino maiteago, zulo zabaleko galbaheagaz, kontakizuna arean ordenatzeko, inor ez aspertzeko. Badut kronologia bat akorduan, uste dut kapaz izango naizela gure arteko elkarrizketak artez ekartzeko. Edo akaso ez, akaso hi-

tzez hitz, literalki, kontatuko dudanetik ezer ez zen benetan gertatu. Baina gezurrari zor...

2

Egia erauzteko erabaki zuen gizon hura bahitzea. Aurrez ez zuen hiltzeko asmorik, bahitu baino ez zuen egin nahi, egia esan ziezaion. Etengabe errepikatu zidan, ez zuen hiltzeko asmorik. Egia jakin behar zuen, besterik ez. Bortxaz bazen ere. Erabat sinisturik ziostanez, ez baitago egia azalarazteko edo ostentzeko modu eraginkorragorik, biolentzia beti baitabil usnaka, biolentzia adurra dariola letagin zorrotzak erakusten dituen txakur uhaletik lotua baita. Bahitzaile bati gura beste adjektibo atxikirik ere, ez gutxiestea komeni dela ikasi nion. Bahitzaileak luzaroan zelatatzen duela ehizakia, helburu argia duela. Batek burua estali, beste batek autoan sartu, hirugarrenak azeleragailuari sakatu eta laugarrenak erreskaterako baldintzak negoziatuta helburua erdiestea, ti-ta, klaketa, akzioa. Bakarrean gatxagoa da, batez ere bahitugaia norberaren neurrikoa bada. Are zailagoa bahitugaia munduko mediku ezagun bezain goretsia bada. Ia ezinezkoa neuropsikiatren arteko izar distiratsuenetako hori herrialdez herrialde, mintegirik mintegi, hegazkinetatik hoteletara, beti bizkartzain batek gerizpeki jagoten

badu. Bitor Larralderi behelaino hori guztia atoan oskarbitu zitzaion beste irtenbiderik ez zuela ohartu zenean, eragozpen, oztopo eta enparauen mehatxuak mehatxu. Bizitza bakarra zuelako, horrenbeste urtean lozorroan egon ostean, ernai sentitzen zelako. Erreskaterik gabeko bahiketa izango zen, haren hitzetan *mundutarron mesederako sekuestroa*, bahituari berari ere on egingo ziona, gau batez baino ez bada ere, ospetsu orok merezi baitu bahitua izatea benetan munduak zenbat estimatzen duen jabetu dadin.

Umetatik zerbaiten esperoan bizi zen sentipena sumatu zuen Bitor Larraldek. Azken seme, mezatan ostia jasotzeko ilaran, lagunekin futbolean atezain, logelako leihotik ama lanetik noiz etxeratuko, elaiak baserriko ataurreko habiara noiz itzuliko, maiteak *Ez zaitut inoiz ahaztuko* aitortuko zion deiaren txirrina gogoan, euria noiz atertuko. Esperoan beti. Zer etorriko, nor hurbilduko, noiz gertatuko. Oraingoan orpoak erakutsiko zizkion erlojuari, ostiak berak banatuko zituen, aurrelari jokatuko zuen. Txalotzeko ausardia zirudikeen ez balitz orduan ere pairatzen zuen gaixotasun larriak noiz eraso egingo zain zegoela, ez balitz orduan ere beste batek aitortuko ei zion egia baten zain

bizi zela. Patua izango zen, esperantzaren etimologia, apika, zalantza bekorotz galanta, nolanahi ere.

Ezetz asmatu nor bahitu duten? galdetu izan balidate, ez dut uste medikuntza arloko inor aipatuko nukeenik. Zer jakin behar nuen munduko neuropsikiatra ezagunena nor zen? Ez zegokeen neuropsikiatrarik nire bahitugaien milako zerrendan, sinesgaitza egingo zitzaidan taxi gidari batek altxorrik desiratuena baino babestuago zebilen neuropsikiatra bahitzea lortuko zuenik. Bururatzea ere! Zer dela-eta bahitu? Zer sendatzen du neuropsikiatra batek? Zergatik jakin behar du gerra argazkilari batek zeinek sendatzen dituen endekapenezko gaixotasunak?

BECen burutuko zen nazioarteko mintegian parte hartu behar zuela profitatuz, mundu osoko komunikabideetan ongile handienekotzat aurkezten zuten Zackari Vicente zen, hortaz, bahitugaia. Bahitzailea, Bitor Larralde, taxista; bahitzaileen buru, hain zuzen, ezinbesteko baitzituen laguntzaileak. Hastapenetik Saioa iloba filosofogaia zuen burkide, ni neu geroxeago konbentzitu ninduen. Aberats zein politikarien taxi gidaria izango zen hirugarren limurtua. Laugarrena, luxuzko sexu langileen etxemaite bateko madama.

Bost laguneko talde hark hiru aste zituen bahiketaren xehetasun txikienak ere aurreikusteko. Gau bakarra, Bitorrek Vicenteri egia erauz ziezaion. Hiru aste horietan mozkorrean ezagutu genuen elkar, egiak eta gezurrak jitoan ibili ziren gure artean, ezkutaketa jolas labirintikoan une oro. Eta zalantza guztiekiko Bitorren sententzia: *Arteak akatsak ditu, laztana. Eta egia latza da*.

3

Bitor Larraldek hogeita hamar urtetik gora zeroatzan taxi gidari. Bikotebakoa zen, anaiaren etxean lo egiten zuen; bizi, taxian bizi baitzen, egunean hamabi bat orduz. Sorlekuan hasi zen, garraio publikorik apenas zegoen sasoian. Baserriz baserri arraina saltzen aritzen zen amarekin goizean goizetik, ortuan gainontzeko orduetan. Taxista lanak egiteko baimena zuen herrikide batek jubilatu asmo zuela jakin zuenean, atoan eskaini zion bere burua baimen-txartela erosteko, baita orduko dirutzaren truke lortu ere. Amak, arrastiro, herriko banketxe bakarra garbitzen eman zituen hamarkadak eta, zuzendariaren lagun egin zelarik, haren txaleta ere garbitzen urte piloa eman ostean, interes oso baxuko mailegua lortu zuen semeak taxista lanetarako baimen-txartela erosteko sosa. Lagunak debalde eroaten zituen apotan egitera, izen oneko alabak legez kanpoko emaginetara, apaiza eskualdeko gainontzeko herrietara mezatara, beti berandu iristen ziren mozkorrak fabrikara, topekan odolustutako ahariak eta euren ugazaba burutsuak irabaziak xahutzera. Berari baino berak ordaindutako bi-

daiak. Xantza izan zuen lehenbizikoan joan zen Bilbora zerbitzua eskaintzera, usterik eta taxia egunero ez zikintzeaz gain, ordaindu ere egingo zioten bezeroak zerbitzatuko zituela.

Nik Bartzelonan ikasi nuen argazkilaritza, Institut d'Estudis Fotogràfics de Catalunyan. Zabaldu zuten urtean bertan eman nuen izena. Damugoserik ez dakarkidan hartutako erabaki bakarra da. Eskolako lehen egunean alokairuan hartutako gelako ohantzean etzan bezain laster igarri nuen Bilbon bizitako urteetan gorputza gotortu zidan izotza urtzen hasi zitzaidala. Ororekin laketu nintzen: irakasleekin, ikaskideekin, ikasgaiekin, institutuarekin, hiriarekin, pisukideekin. Hiru ikasturte gogoangarriok luzatzeko era guztietako tailerretan eman nuen izena, harik eta ikasketak amaitu orduko egunkari zein agentzietatik deika hasi zitzaizkidan arte.

Bitor Larralde ezagutu nuenerako urteak neroatzan gerra argazkilari lanetan, atertzen ez zuten gatazketako irudiak jasotzen, bidaia etengabean, irabazitakoak biharamuneko hegazkin txartelerako gordetzen, txakur txiki barik beti. Bilbora, amaren etxera itzuli behar izateraino pobretu nintzen. Esana dut, ezaguna ere egin nintzen, komunikabideetan nire ar-

gazkiak ahotan izaten zituzten sarritan, saritua ere izan nintzen, behin baino gehiagotan. Ez nuen deus aurreztu. Bartzelonako egonaldia salbu, oker ez banago, zorion une gutxi edo bat ere bizi gabea nintzen ordura arte. Akaso, ni baino zorigaiztokoagoak ikusten kontsolatzen nintzen; edo, sinpleki, ez nuen zorontsua izateko astirik, edo Bilbotik alde egitea zen sakonean zinezko arrazoia. Gerran argazkiak egin - Bilbora itzuli - euria. Gogoan iltzatua dudan sekuentzia.

Halaxe nentorren Kandil mendietan YJA-Star-eko emakumeekin hilabete igarota, Lampedusatik barna, pentsamendua are zuztarretikago formateatu zidaten bi erreportaje burutzetik.

Loiuko aireportuan batu ninduen Bitor Larraldek, ilaran lehenago zituenak aurreratuta.

ARANTZA: Bilbora, mesedez, Hernani kalera.

BITOR: Gabon, bai.

ARANTZA: Barkatu, leher eginda nator.

BITOR: Bidaia luzea izan duzu.

ARANTZA: Amaiezina.

BITOR: Argazkilaria zara, ezta?

ARANTZA: Gerra argazkilaria, hain zuzen.

BITOR: Neuk ere asko maite ditut argazkiak. Aldeko zorroak kamerentzat dira, ezta? Zenbat daroatzazu?

ARANTZA: Birekin moldatzen naiz.

BITOR: Noski, bi begi, bi kamera.

ARANTZA: Aizu, zelan ba utzi dizute ni jasotzen, ez zinen-eta lehena.

BITOR: Denboraz larri nabilela esan diet.

ARANTZA: Horregatik zoaz horren astiro.

BITOR: Mesedeak ez dira esplikatu behar. Nondik zatoz?

ARANTZA: Kurdistanen hasita Lampedusatik.

BITOR: Argazkia zeri egin aginduta...

ARANTZA: Ez, nagusi barik nabil, gura dudana jaso nezake.

BITOR: Dagoena esan gurako duzu.

ARANTZA: Ikusezinak argazkiratzea maite dudala esan gura dut.

BITOR: Zure ofiziokide batek ernaiarazi zidan argazkilaritzarekiko afizioa, bateko eta besteko gerretan aritzen da hura ere. Donostiarako bidean lagun min egin ginen, huskeriez hasieran, hil ala bizikoez Itziar parean. Halako batean, *Hi Bitor, hire ustez, zeinek be-*

tetzen zuen argazkiaren egitekoa kamerarik ez zenean? galdetu zidan braustakoan.

ARANTZA: Ofiziokideen artean ohikoa den pitzadura, bai. Zer erantzun zenion?

BITOR: Pinturak? *Eeez!* Kantuek? *Ezta!*... Memoriak? Eta isildu egin zen, pentsakor. Orio pasa arte ez zuen berriz ahorik zabaldu.

ARANTZA: Ez da erantzun txarra. Baina argazkia egiatiagoa da.

BITOR: Berebizikoa, argazkia zeri egin norberak aukeratzea dela esan didazu lehen.

ARANTZA: Eta memoria ez?

BITOR: Memoria gero lumintzen da, oroitzapenak kontatutakoan, irudiei hitza emandakoan, ez? Memoria beti manipula daiteke.

ARANTZA: Eta irudiak ez? Irudiekaz eroso bizi gara, memoriagaz zakur borrokan. Berrehun urte barru ere, atzo atera nituen argazkiek ez dute gezurrik esango, baldin eta inork ez badio bere buruari galdetzen zertarako egin nituen.

BITOR: Iragandakoak berriz bizitzeko zara gerra argazkilari, orduan.

ARANTZA: Galderak erantzuteko. Ez dut gogoan noiztik ez diodan ezeri egiantzarik hartzen.

BITOR: Askok egiten diote ihes bere buruari argazkietan. Memoria beste manipula daitezke. Baina barkatu, nekatuegi zaudela sumatzen dizut. Musika jarriko dut.

4

Gerra argazkilari neroatzan urteetan horrenbestetan saihestutako gaiari buruzko elkarrizketa izan nuen taxista harekin. Ez nuen lehen taxista filosofoa. Habanako, Mexiko DFko, Istanbuleko, New Yorkeko taxista bategaz platikatua nintzen lehenago ere, gai existentzialez zein garrantzi bakoez luze jarduna nintzen mundu osokoekin. Baina Bitor Larraldek azaleratzeko txandaren zain neukan galderaren punta zorrotza sartu zidan ipurmasailetan. Galdetegia buruz ikasia zuen zamaketari hark berandutu egin zidan loa. Itsasoan, pozoitutako uretan, tripaz gora dagozen ehunka gorpu bete erretratatzetik nentorren, lehenagotik ere lar maite ez nuen solaserako batere gogo barik, eta tipo hark, konturatu orduko filosofia eta etika azterketa sakona egin zidan. *Utz nazazu etxepean eta bakean! Zuk zer ostia dakizu, zamaketari menpeko ziztrin bat baino ez zara-eta! Ze memoria eta ze memoriaondo!*

Zentzuduntzat dut neure burua, ez dut kalapita maite, baina batzuetan oldartu egiten zait piztia. Onartzen dut umetako oroitzapen bakar batek ere ez

didala pertsonenganako maitasuna sentitzeko arrazoirik sustraitu. Gorroto ditut lagunarteak, gorroto dut familia, gorroto ditut zorion ospakizunak. Gaztetan erosi nuen lehen kamerarekin gurasoei familia argazkia ateratzea otu zitzaidanetik. Aitak eskuineko eskua jakan sartu zuen, ezkerrekoa poltsikoan. Amak biak ostendu zituen.

Hartzaile txarra naiz, izua diot ubelari, txikitxuterik. Gure aita zenak jatorduro eginarazten zigun otoitz *Familia da gizon baten ondasunik preziatuena*. Hiesak jota hil zen hura, auzoko lilitegietan erlezaintzan ibiltzearen podesuz, medikuak hilostean, bagenekiena, aitortzera. Amak, hilartekoak bikote finko barik gozatzea hobetsi zuen. Apotan ausarki gozatu zuen aluki zein zakilkiekin. Argazkilaria izan gura nuela aitortu nionean, aitaren bizitza aseguruko dirutik aurreratu zidan. *Bartzelonan eskola berria zabalduko dute, zoaz. Etorri lantzean bisitan, ez gehiegitan ere, munduan izango da jende zoragarririk, bila ezazu. Zure askatasuna zeure barruan baino ez duzu libre, eta ez zaitzala ezelango tiranok konkista.*

Aita putazale haren zurikeriarako, serorek gobernatutako ikastetxe batean sartu ninduten, zeinak Bilbo erdian egonik hiriari itzuri eginda irauten duen

mende bete eta arean gehiagoz egun ere. Zeruraino-ko hormatzar gris haiek urrunetik ikusteak, erraldoientzat egurrezko ate bekokilun hura zeharkatzea, usain hotz hura. Amari ez askatzeko oratu nizkion eskua eta begirada, berak niri estuago, eskolako lehen egunean. Aitak serorarekin berba egin ostean agindu zidan: *Utzi negarrari eta zoaz, Jaungoikoaren etxean sartuko zara, esker ona erakutsi beharko zeniguke*.

Lehen egun hartan, nork bere burua banan-banan aurkeztu genuenean, gezurra esan nuen. Ahizpak asmatu nituen, aitaren lanbidea, amaren ofizioa. Ez nien etxekoei buruzko egia bakar bat esan. Serorategian eman nituen urteak egun hartako gezurrei zerizkien itoginak betetzen eman nituen. Olgeta hura arnasbide bilakatu zitzaidan argirik gabeko inframunduan. Gorroto nuen begirik kentzen ez zidan Mendoza ahizpa. Hezur haragizko katamalo bat zen, maniki hiltzailea, itxurakeriaren perfekzionista. Horren gintuen maite, ezen bizitzaren misterioaren ilunengandik babesteko zeruko argia gure hankarteetan xerkatzen baitzuen. Ni kirikolatz malerusak eta barraskilo mesfidatiak irudikatuz laketzen nintzen, laino koloreko arkatzez.

Serorategia utzita gaurdaino, erabateko bakardadean bizitzen ahalegindu naiz, eguneroko betebeha-

rretatik aske. Amaren aholkua iparrorratz, Deustuko tabernetan hasi nintzen lanean eta unibertsitatera ikasten etorritakoen pisu batean hartu nuen ostatu. Independentzia beteko hastapen haietan, ustez libre eta airos, iluntzero lanean, egunak loari emana bizi izan nintzen, ia urtebetez. Egun libreetan hogei ordu ere igarotzen nituen ohean, lo, kokorrotuta, ezertan ez pentsatzeko ahaleginetan, zerrendak osatzen, ehunka, edozeri buruzkoak: Hitzak, bata bestearen azpian. Amaitutakoan, berba zerrenda luze haiek horma kontra fusilatzen nituen, zatitan txikitu. Eta halako batean, goiz batez, angurria, kiwia, meloia, kafesnea eta gailetak gosaltzen ari nintzela, argazkilaria izango nintzela erabaki nuen. Garbi ikusi nuen luzaroan ez nuela ez pertsonarik ez objekturik maitatu. Jabetu nintzen gertukoekiko zegokidan maitasuna ez zela maitasun, amodioaren simulakroa baino. Baita amarekikoa ere. Baita amarena nirekiko ere. Enigma bat bihurtu nintzela neure buruarentzat, deskribaezina nuela ispiluaren aurrekoa. Argazkietan baino ez nuela bakerik ezagutuko.

Gerra argazkilari gero bihurtu nintzen, Bartzelona txikiegia eta Bilbo itogarria egin zitzaizkidanean. Koldarrak irentsi ninduen Bilbora ez itzultzeko. Ez nuen

gure hildakoen argazkirik egin nahi. Amak berak ez itzultzeko eskatu zidan, bilatzeko beste gerra batzuk argazkietarako, auzokoegia zela gurea onik ateratzeko, orduko etengabeko euri zitalak ez zuela atertuko luzaroan.

Gerra argazkilaritzan gura beste lan izan nuen, usoa beti zegoen begipunturen batean eta ni patxada handiko frankotiratzailea nintzen. Basakeria bakoitzerako objektibo egokia aukeratzen nuelako miresten ninduten ofiziokideek. Aiherga hartzen nituen lausenguak, ez nuen zer erantzun jakiten. *Argazkietan dago nire hitza. Ez dut beste ezer esateko.*

Urteetan ikusitakoek ez zidaten espeziekideekin berradiskidetuko nintzenik iragartzen. Baina hori erabat aldatu zen, lehenik Kandilgo mendietan Zelal ezagutu nuenean. Eta Bitor Larraldek Zack Vicente bahitzea proposatu zidanean gero. Orain, memoria gimnasioan akitu arte darabildan honetan, okertzeko beldur gabe bereizten ditut bizitza aldarazi didaten gertakariak. Orain ez naiz egiaren beldur edozer esateko.

5

Taxistak eta biok elkar ezagutu genuen gau hartan gidoi bati jarraiki ari ginen berbetan. Ni, inprobisatzen. Gidaria, gai-jartzaile. Ez zuen isilean galtzeko astirik, kanpoan euri txingorra ari zuen bitartean.

BITOR: Barka nire senperra, Kurdistanen ibili zarela esan didazu. Zertan?, atrebentzia ez bada.

ARANTZA: Egunkarietan agertuko diren argazkiak ateratzen, hango emakume gerrillariei.

BITOR: Hara!, zu zara Arantza Ojanguren gerra argazkilaria, Zaloa Velezekin Kurdistanen ibili dena.

ARANTZA: Bazenekien, antza.

BITOR: Ni Bitor Larralde naiz. 60 urte ditut eta Huntington gaitza diagnostikatu berri didate.

ARANTZA: Zorionak, detektibe pribatuen gaixotasuna ematen du. Punk talde batena dirudiena dut nik: glaukoma.

BITOR: Sei urte zituela, auzoko baserriko madariondo gainean lapurretan ari zela, txakur zaindaria haginkasmoka etorri eta astebetea madariondoan igaro zuen tipo bat eroan nuen behinola taxian.

ARANTZA: Kontu bitxiak entzuten dituzue taxistek.

BITOR: Sarritan garraiatzen ditut bizitzaren eguneroko altxor xume bezain ezdeusak maite dituztela goratuz masturbatzen diren milioidunak ere.

ARANTZA: New Yorken izan nintzen lehen aldian, uzbekeraz baizik ez zekien taxista bategaz ezagutu nuen Manhattan osoa.

BITOR: Eta ezagutu zenuen Philippe Petiten laguntzailea izan zen taxista pakistandarra?

ARANTZA: Nor da Philippe Petit?

BITOR: 1974ko goiz batez World Trade Center dorreak kable baten gainean zeharkatu zituen funanbulista.

ARANTZA: Eta taxista?

BITOR: Petitek zain egoteko esanda, gora begiratzea burutik pasatu ez eta agindutako hotelera itzuli zuen pakistandarra: Faruk Hamid, *Nik ezagutu nuen Philippe Petit* idatzi zuena.

ARANTZA: Ezagutu ditudan taxista pakistandarrak isilak bezain baketsuak iruditu izan zaizkit, New Yorkekoak zein Karatxikoak.

BITOR: Kairon egondakoa izango zara orduan. Eroen antzera gidatzen omen dute.

ARANTZA: Ez dakit zelan gidatzen duten eroek, ez dut erorik gidatzen sekula ikusi. Izua bai, sarritan sen-

titu dut, Kairon baino hurbilago ere bai, hiru ordu laurdenera dagoen aireportuan, adibidez.

BITOR: Guraso, irakasle, gidari, edozeini ematen diote baimena edozertarako.

ARANTZA: Ero faltan ez gaude...

BITOR: Berton duzu balizko bat. Medikua oker ez badago, Huntington gaitza pairatu duten gehienen antzera, erotu eta neure buruaz beste egiteko aukera asko dauzkat.

ARANTZA: Medikuak ere okertzen dira.

BITOR: Eta gerra argazkilariak.

Bitor Larraldek ez zuen denbora alferrik galtzeko asmorik. Aurpegia tupustean mudatu eta gezia bidali zuen erdi-erdira barruko erretrobisoretik begira, eskua bolanteari gogor oratuta, baiezkoa beste erantzunik onartuko ez zuten begi nabarrekin. Aurreko eserlekuraino ernaiarazi ninduen proposamena egin zidan:

BITOR: Lan bat daukat zuretzat. Lagundu egin behar didazu.

ARANTZA: Nik? Zertan?

BITOR: Huntingtona senda dezakeen bakarra hiru aste barru iritsiko da Bilbora. Zack Vicente du izena. Bahitu egin behar dut.

ARANTZA: Zorte on.

BITOR: Bahiketa argazkietan gordetzea gura dut. Ez dut bideorik gura, ez kazetaritza kronikarik. Zuk ateratako argazkiak gura ditut.

ARANTZA: Ez duzu benetan esango!

BITOR: Huntington gaitzarena egia da.

ARANTZA: Orduan, baliteke bihar bertan balkoitik hegaz egiten ahalegintzea? Beldurgarria da Huntington hori.

BITOR: Gupidagarria, esango lukete beste batzuek.

ARANTZA: Aizu, non ipinita daukazu ezkutuko kamera hori? Gustuko ditut era honetako txantxak...

BITOR: Endekatzea erabatekoa izan aurretik, zorarazi eta inoren laguntza beharrik ez duen eutanasia ahalbidetzen duen gaitza da. Ez nabil brometan. Dirutza daukat prest zure laguntzaren truke.

ARANTZA: Eskuzabala zer zara gero! Ez dut gogoan Bilboko taxisten artean arrotzei bahiketetan parte hartzea eskatzea ohitura denik. Mundu osoan ibilitakoa naiz eta aurrekari guztiak hankaz gora bota dizkidazu brastakoan.

BITOR: Sinesgaitzagoak irenstetik zatoz, ezta?

ARANTZA: Eta zelan dakizu Zack Vicente horrek zure gaitzaren sendabidea ezagutzen duela?

BITOR: Jakin behar du.

ARANTZA: Noski. Barkatuko didazu mesfidantza baina...

BITOR: Bai edo ez, ez didazu besterik erantzun behar.

ARANTZA: Lagunduko dizut... Ez dut sekula bahiketa batean parte hartu. Zirraragarria izango da. Gainera, ez dut beste zereginik...

BITOR: Esan dizut ez nabilela brometan. Badakit diru premia larrian zaudela. Zuk behar dituzun sosak nik dauzkat. Pentsa ezazu. Bihar bertan hasiko gara, eta bihar bertan emango dizut lehen partea.

ARANTZA: Ezaguna egiten zait aginduz proposatzeko era hori.

Marra gorridun alkandora merkea eta lisagailuagaz tente markatutako praka beltzeko taxista bat artoski pentsatutako bahiketa batean parte hartzeko gonbita egiten ari zitzaidan, behar-beharrezkoa nuela zekien diruaren truke.

Drogak, luxuzko prostituzioa, ustelkeria, mafia eta heriotza mehatxuak bertatik bertara ezagutaraziko zizkidan bahiketa baten egile izateari erantzun beharko nion, artean antzekorik urrundik ere susmatzen ez nuen arren.

Nire bizitza hamarkadek bereizi beharrean, oinaztargien pareko gertakariek bereizten zutela sinesten hasita nengoen.

BITOR: Gerrako argazkilaria zara eta, oker esan ez didatenez, glaukoma aurreratua diagnostikatu berri dizute. Bi aukera dituzu: gerra argazkilaritza utzi edo itsu bizi. Uste dudan bezain azkarra bazara, lehena aukeratuko duzu eta bigarrenari aurre egiteko ebakuntza egingo duzu. Dirutza baten premian zaude. Nik badaukat, gura bestetan errepikatuko dizut. Horra nire telefonoa. Deitu egidazu, bihar non batuko garen zehazteko. Ekarri kamera eta koadernoa.

ARANTZA: Larregi dakizu niri buruz, gauza onerako. Gelditu taxia atoberean!

BITOR: Baretu zaitez. Taxista naiz Bilbon azken hogeita hamar urteotan. Bezero asko ditut: kontakatiluak, ahoberoak, larderiatsuak, inorengatik edozer edozelan esan zaleak. Ez daukazu jakiterik zeinen zorigaiztokoa den hiri honetako jende bakartia. Konfesore mugikorra naiz. Eta ez dut minutu bakarra galtzeko.

ARANTZA: Benetan da publikoa gure osasungintza.

BITOR: Hain zuzen ere. Pentsa ezazu, ez daukazu aukera askorik.

ARANTZA: Utzi egidazu neuri hanka sartzen.

BITOR: Ez ahaztu bihar kamera eta koadernoa.

ARANTZA: Baiezkoa ematekotan, ez dut koadernorik erabiliko. Ez naiz berben lagun. Iruzurtiak dira. Zure antzera.

Etxepean utzita, etorri bezain astiro alde egin zuen. Desagertu zen arte begiratu nion atzetik Mercedes C 320ari.

Euri-haizeak oroitzapena ekarri zidan. Hilabetea zen gau batez esnatu eta bost minutuko itzalaldia izan nuela. Medikuak bi begietan sekulako tentsioa nuela ohartarazi zidan, denbora laburrean hagitz garatutako glaukoma. Ebakuntza egunetik biharrera egin ezean itzalaldian betiko bizitzeko arriskuan nintzen. Zinez zen larritzekoa bi begietara zetorkidakeen lurrikara. AEBetako Milwaukeeko ospitale pribatu batean zegoen tunel osteko argia, merketik galaxietara. Deontologi kodeaz pare bat gauza esango nizkion familia medikuari ukabilen pare izan banu. Nori ez zion emango nire glaukomaren berri taxista single bati dena aitortu ostean?

Horrenbesteko nekearen podesuz burua galtzen ari ote nintzen, jet-lagak eldarniotan horditu ote nin-duen, logelaren ospelak hormatu. Lominez, atseden

hartu ahal izateko, gerra argazkilaritzan eman nituen urteetan erabakiak di-da hartzeko gaitasunari erregu egin nion sehaska kantari etor zekidan. Debaldetan. Lorazepamari esker lortu nuen, beste behin, gorputzak eskatzen zidan su-etenari amore emanda lokartzea, biharamunean Bitor Larralderekin izandako elkarrizketa ametsetan izan zela oharturik esnatzea gurarituz. Telefonoak jo zuen arte.

BITOR: Egunon, 10:00ak dira. Prentsaurreko batean argazkiak ateratzeko enkargua daukazu. Hogei minutu barru jasoko zaitut.

6

Hiru aste geroago egingo zen gaixotasun arraroei buruzko nazioarteko mintegia aurkezteko prentsaurrekora eroan ninduen Bitor Larraldek. Begira-begira egon nintzaion. Patxadaz gidatzen zuen, ez klaxonik ez deiadarrik, ez haserre keinurik. Aurrera egiteko une egokiaren zain egoten ohituta zirudien. Esku maiztuak zituen, tinko eusten zioten gidatzen zuen zilar distiratsuko Mercedesaren larru beltzeko bolanteari. Larrua gozatzen ez beste zerbaitetan zigortutakoak zituen eskuak. Begizuloak, beste hainbeste.

Damasko ekarri zidan akordura. Mercedes beltzen errenkada, bazar erditik ziztuan, atsoari paretik kentzeko oihukatzean besoak airoski astintzen zituen haizerrotaren tamainako bizkartzainaren espantuak. Klikliklikliklikliklik. Begizulo berdinak, eskubarru puztu lakarrak, gidari jaioarenak baino egurrezko kirtenak urratuak. Erditik kentzen ez zelako, autotik jaitsi eta lagundu zuen bizkartzainak atsoa. Parera etorri zitzaion kaputxadunak kalaxnikova desarratu zuen. Esku txikiak zituen, begientzat zulo bakar estua. Zoomagaz ari nintzen dena erretratatzen, kamera atzean

ostenduta aurpegia. Diru asko eman zidaten argazki haiengatik.

Prentsaurrekoan aritu ziren Summers & Paulson produktu farmazeutikoen multinazionaleko zuzendaria, Gurutzetako ospitaleko bi neuropsikiatra, alkatea, ahaldun nagusia eta gaixotasun larriak dituzten haurrei laguntzeko nazioarteko fundazio bateko arduraduna. Elkar koipetsu balakatu ondoren, komunikazio arduradunak azalpenetarako zerabilen pantailari erreparatzeko eskatu zigun. Washingtondik skype bidez agurka ari zitzaigun doktorea zen txaloen eragingarri. Zack Vicente, gaixotasun arraroetan mundu mailako adituetan neuropsikiatra laudatuena, Harvardeko katedraduna, genetika eta neurologia ikerketa saileko burua, Clinton, Bush eta Obamaren administrazioetan AEBetako osasun sistema kudeatzen zuen batzorde aholkulariko kide iraunkorra, hies zein bestelako gaixotasun hilgarrien aurka ekiteko Free Africa Illness irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundearen sortzailea, droga trafikoaren aurka ekiteko AEB eta Mexikoren arteko bitariko batzordeko kidea, Summers & Paulson multinazionaleko aholkularia.

Burusoila, metro eta hirurogeita bost, lepo zabala, gihartsua, kolore marroi kaobazko azala. Nazioarteko

mintegia Bilbon antolatzeagatik eskerrak emanez hasi zuen aurkezpena mexikarren espainiera argian. Pozarren zegoen lehenbizikoz bere arbasoen sorlekua ezagutuko zuelako; eta horren garrantzitsua zitzaiola frogatzearren, Harvardeko bere ikerketa taldekoek burutu berri zuten urte luzetako ikerketaren ondorioak plazaratuko zituen, beste inon baino lehen, hemen, gurean. “Anai-arrebok, arbasook, gizateriaren ongizateari, bizi-itxaropenari zein bizi-kalitateari, Bilbori eta Espainiari, alimaleko onurak ekarriko dizkien albiste mundiala izango da, Historiak gogoan hartuko duenetakoa. Ezin dizuet besterik aurreratu”. Txaloak.

Summers & Paulsoneko komunikazio arduradunak ziurtatu zuenez, krisitik ateratzeko behar genuen azken bultzada emango zigun. Bitorrek eskatutako gorputz osoko argazki sorta egin eta alde egin nuen. Bahitzeko modukoa iruditu zitzaidan Zack Vicente hura. Bahitzeko gogoa ere eragin zidan, zetazko atorra okaztagarria aldean. Ezkutatzeko asko dutenen eran mugitzen zituen bekainak. Enpatia sentitu nuen Bitorrekiko. Bahitzea lortuz gero, galdeketa argazkitan hartzen uzteko eskatuko nion, bekainak gezurrekin edo ukabilkadekin konpasean zelan mugitzen zituen erretratatzeko. Bahitua kolpatu osteko borreroa-

ren begirada kameraz jaso gabea nintzen oraino. Mendoza mojari eskolan igartzen genion atsegina adieraziko ote zuen Larralde taxistaren begiradak Vicente kolpatzean?

BECetik Errebalera egin genuen, Bilbokoa izan arren ezezaguna zitzaidan auzunera. Serorategian bizitako urteek sorterritik ihes egiteko premia eragin zidaten, doi-doi ezagutzen nuen hiria Bilbo zaharretik edo erdialdetik landa. Lekutako gerra batetik itzulitakoan ez zitzaidan egundo bururatzen etxetik paraje mugitzerik. Argazkiak editatzeko erabiltzen ez nituen orduak lan berriak lortzen ematen nituen, sarera loturik. Ez nuen neure hiria ezagutzen.

Periferiako auzunea da Errebale, Euskalduna ontziolarentzat horniketa lanetatik aberastu zen Tubespa fabrika sortu zutenean auzo zaharraren gainean eraikitakoa. Porlan grisa, leiho zuriak, nortasun bako ateak, ehunka familia. Populatua zen, herri baten bizimodua zekarrena. 1960tik aurrera era guztietako dendak, 13 taberna, 4 ostatu, 5 banketxe, ibilgailuak konpontzeko 3 tailer eta 2 eliza dituena. Tubespa zarratu zutenetik laurdenera etorria.

Euripean grisagoa iruditu zitzaidan Errebale.

ARANTZA: Burumakur jendea hemen...

BITOR: Tubespa itxi zutenetik lanurdinak kakoan eskegita dituzte, berriz noiz lohituko. Gutxi dagoz amaigabeko euri honetatik lehor.

ARANTZA: Ezingo diet bisaia erretratatu.

BITOR: Esaiezu, agian ez ziren jabetuko. Uzkurrak dira, izan ere!

ARANTZA: Ohitura dut. Noan lekuko jendearen aurpegiei argazkiak egitea gustatzen zait.

BITOR: Memoria nagia. Asko entzuten den gaitza da. Amnesiaren ahaide gaztea ei da.

Jantzia zen gure taxista, luzaroan hausnartuaren diskurtso sendokoa, gorputzaren mugimenduetan bilin-balantza gutxikoa, txirriporroa zenbaitetan. Taxitik Nardi ostaturainoko ehun metro eskasetan auzunearen historia laburbildu zidan, nabarmendurik, aurrerantzean bahiketa prestatzeko batzarleku izango genuen ostatuaren historia ezagutu ezean, ezinezkoa zela Errebale ulertzea.

BITOR: Atera egizkiozu argazkiak etxeari auzotik eta auzoari etxetik.

ARANTZA: Nire argazkigintza *paisajismo zikina* dela aurpegiratu zidan kritikari batek. Non dago hemen lupetza?

BITOR: Ostatu honetan prestatuko dugu Zack Vicenteren bahiketa, leporaino sartuko gara lokatzetan. Elkarrizketa batean irakurri nuen, zure sormen lanaren helburua agerian ez dagoena azaleratzea dela. Ahaztu egin dituzu zure esanak?

ARANTZA: Oker zaude, nik ez dut horrelakorik sekula esan, kazetariak manipulatuko zituen.

BITOR: “Nire argazkien xedea hitzak lotsagorritzen dituena kontatzea da”, ondo gogoan dut zer esan zenuen, azpimarratu eta gordeta daukat.

ARANTZA: Dena baldin badakizu, zertarako behar nauzu?

BITOR: Laguntza behar dut. Besterik ezean burutuko nuke bakarrik, baina ezin dut arriskatu. Ez da edozelangoa nire egitekoa.

ARANTZA: Beste salbatzaile bat! Jainkoak benedika gaitzala! Beste gizon bat gudarako martiri!

BITOR: Hil aurreko egiaren bilaketan ari naiz.

ARANTZA: Zure egiaz ari zara, noski.

BITOR: Egiaz ari naiz, bai.

ARANTZA: Egunero harritzen nau zakilburuen kirtenkeriak. Diruarengatik bada ere, egin asmo duzuna ulertzeko aterako ditut argazkiak, ez zure endekatzea

mitifikatzeko. Hori kamerarekin ez beste zerbaitekin lortu beharko duzu.

BITOR: Badago alderik?

ARANTZA: Diruaren truke egingo dut. Eta, bide batez, artistaren jakingosea asetzeko.

BITOR: “Arteak akatsak ditu eta egia latza da”, ez ezazu ahaztu.

ARANTZA: Horiek ere nireak al dira? Zenbat maite ditudan elkarrizketa hutsal horiek.

7

Nardi ostatua Errebale berria populatzen hasi zirenean zabaldu zuten, diktadorearen laguntza tarteko. Aterpetzen zuen eraikina Errebale zaharrekoa zen, auzo modernotik bazter utzi ez zuten baserri bakarra, familia abertzale batena, abegikortasunez ebatzirik narditarrei eskainitakoa, Espainiaren alde isuritako izerdi eta odolaren sari. Narditarrena, Francoren alde borrokatzera Italiatik etorritako sarjentu baten sendia zen, Otxandioko eta Durangoko bonbardaketetan aritutako teniente baten ondorengoak.

Bitor: Ez aipatu halakorik ugazabandre Doloresi. Errefusatu egiten du bere familiaren iragana. “Nik ez dut aurrekoek egindakoaren ardurarik”, esaten du gaitziturik.

Baserria zenaren etxabean taberna moldatu zuten, goiko lehen solairuan logelak, narditarrak batean, maizterrak gainontzekoetan. Gerran galdutako gurasoekiko harremanen ordezkoak ziren Narditarrekikoak maizter askorentzat. Izan Carola, izan Soledad, izan Amalia, Nardi andrea zuten negar-altzo. Zeinen aurpegi aratza, zeinen esku latzak, zeinen azal zuria, zeinen

esku gorriak Doloresek. Ezinbestean koloretan atera nizkion zuri-beltzean nahiago nituzkeen argazkiak. Koadrodun amantalean harrotzen zen gorputzaz aurreratzen zituen gerora hitzekin osatuko zituenak.

DOLORES: Bitorrek, taxiagaz Bilbon hasi zenean, eguerditik ordu txikiak arte joan-etorri etengabeak egiten zituen, hiriko erdigunetik zein inguruko herrietatik Errebalera, gurera, hala gorbatadunak nola abarkadunak ekartzera, belarrimotzak berdin sabindarrak.

ARANTZA: Ezjakinei bizitza erakutsi guran.

BITOR: Lehen ez genuen Guggenheimik. Zapatuetan ere lanera. Domekak aste luzeak balira bezala profitatzen ahalegintzen ziren orduko gazteak.

ARANTZA: Sekretuak gordetzen zenekiten konfesore agurgarriak, taxistak.

DOLORES: Halaxe da, neska; zenbat mozkor maitasun bakoren bihozminak ez ote dituen Bitorrek entzun!

BITOR: Barruan zerbitzatuko diguzu, Dolores?

DOLORES: Zuena baino batzar garrantzitsuagokoei egin izan diedan legez. Orduan eguzkiak gehiago argitzen zuela, orduan euriak atertu egiten zuela.

BITOR: Esku hutsik etorri zara...

ARANTZA: Abisatu nizun, ez dut idazteko ohiturarik.

BITOR: Irakurtzen jakingo duzu behinik behin. Emaiozu bistadizoa karpeta honi, nire iloba Saioa iritsi bitartean.

Zack Vicente doktoreari buruzko dokumentazio lanaren emaitza zen. Paper-meta mahai gainean pausaturik hasi zitzaidan eleketan Larralde taxista. Milaka ziren neuropsikiatrari buruz interneten dandilizka irakur zitezkeen elkarrizketa, publierreportaje eta enparauak. Texas Mexiko zenetik abelazkuntzan, petrolio eta gas ustiaketan aberastutako sendian sortua, *Forbes* aldizkariaren arabera, vicentetarrak XIX. mende amaieratik ziren munduko familia aberatsenetarik. Rangersetatik hasi, Wall Streeten sustraitu eta Kapitolioraino saretu ziren, abelazkuntza, petrolioa eta gasa ez eze, farmazeutika eta teknologia berriak direla medio. Dirutza bideratu zuten Bill Clintonen presidentetzarako kanpainara, eurek erakarri zizkieten komunitate hispanoaren bozka erabakigarriak Bushi lehenik, Obamari ondoren.

BITOR: Han ez dute erabakirik hartzen vicentetarren oniritzi barik.

ARANTZA: Ideia ona da bahitzearena. Galderak prest izango dituzu aspalditik.

BITOR: Ez da azterketa bat izango, galdera bakarrarekin nahikoa.

ARANTZA: Arrastorik utzi barik, buruz ikasteko. Bikain.

BITOR: Beste hiru lagunen premia dut bahiketarako. Esan dizut, argi daukat egin beharrekoa, eta ezin dut bakarrik lortu. Zure egitekoa ez da horren iluna ere, lehenago ere izango zinen diruarengatik lan egindakoa.

ARANTZA: Noiz batuko zaizkigu beste biak?

BITOR: Saioa bidean da. Bestea gero lakiotuko dugu.

ARANTZA: Zein da zure plana?

BITOR: Zack Vicente bahitu eta gau bakarrean Huntington gaitzaren sendabidea esanaraztea. Inor ez da ohartuko bahitu dugunik ere.

ARANTZA: Ezta bera ere. Onik ateratzeko itxaropena duzu.

BITOR: Horren babestuta dagoena kakati galanta dela diost bihotzak. Baietz alarauka hasi labanaren punta sentitu orduko.

ARANTZA: Utziko didazu galdeketan egoten? Vicenteren keinuak erretratatu gura ditut.

BITOR: Ez diot galdeketarik egingo. Galdera bakarra. Eta noski, horretarako kontratatu zaitut, egingo dudan guztia jaso dezazun.

ARANTZA: Eta martiri ustea badu?

BITOR: Ziur nago ezetz.

ARANTZA: Eta ezer esaten ez badu?

BITOR: Erantzunaraziko diot.

ARANTZA: Ez nekien taxisten kode deontologikoan tortura baimentzen zenik.

BITOR: Ikusi ditut zure argazkiak, sarean dagozen guztiak. Argazki baten truke zaurituak eta hildakoak laguntzeari utzitakoa zara.

ARANTZA: Argazkiratuta, betiko lagundu diet.

BITOR: Jendea mila puskatan... eta zuei argazkiak ateratzea baino ez zaizue bururatzen.

ARANTZA: Guri esker irudikatzen duzue mundua zein zabala eta krudela den.

BITOR: Horrenbeste gerra irudi, egunero, atergabe, erauntsian. Jabetuko zinen dagoeneko odolak ez dakarkigula malkorik.

ARANTZA: Tira, esadazu, noiz ezagutuko dut zure iloba?

8

Bitorren anaia Domingoren eta Juliana Okendoren alaba bakarra zen Saioa. Firestonen lanean ezagutu zuten elkar. Zortzikoak hamabira luzatutako aparteko orduetatik etxerako trenean kontu kontari hasita maitemindu ziren. Hogeita hamarrak ondo beteta zituztela gurasotu, Errebaleko etxea ordaintzen amaitu zutenean. Julianak proposatu zion Domingori herritik hirira lanera etorritako anaia sasoi baterako apopilo aterpetzea, etxea lehenago ordaintzen lagunduko ziela-eta anaiaren errentak. Bitorrek laudorioak baizen ez zituen koinatarekiko. Ez zuten familia bizitzarik egiten. Domingok eta Julianak errelebotan lan egiten zuten, Bitor goizean goizetik abiatu eta gauean berandu itzultzen zen. Igandeetan, ez denetan, izaten zuten elkarrekin bazkaltzeko parada; orduan igartzen zuten Julianak eta Domingok eurekaz bizi zena Bitor.

Saioa munduratuz geroztik, Julianak aparteko orduetan lan egiteari utzi egin zion. Bitorrek astegun buruzurietan Saioa lokartu aurretik etxeratzeko ohitura hartu zuen. Txera berezia zioten elkarri Bitorrek eta Saioak. Txikitxuterik izugarri maite zituen ama-aitak,

eta osabagaz askoz hobeto konpontzen zen etxeko neskatila. Osaba taxistagaz joaten zen eskolara, osabak jasotzen zuen unibertsitatetik iluntzeetan. Umetan ez zuen inori musu ematen derrigortu, heldu aroan ez zion eguneko gorabeherez ezaxola galdetzen. Bitorrek aspaldi ikasi zuen, Saioagaz entzutea zegokiola. Haren jakingoseak liluratua zeukan.

BITOR: Ondo?

SAIOA: Bourdieu, Azurmendi, aspertzeko gutxi.

BITOR: Ekarri dun musika berririk?

SAIOA: Betikoa, baina ahots ezberdinez.

BITOR: Iraultzak, orduan, itxaron egin beharko din musikan ere.

SAIOA: Zuek entzuten ez dituzuen arren, iraultza txikiak etengabe datoz.

BITOR: Merkatuak aspaldi irentsi zituelakoan nengonan.

SAIOA: Eta guk merkaturik ez dugunez, autonomo joka genezake. Ez gaituzte horrenbeste suntsitu.

BITOR: Hire bekokiak ez din ba garaipenaren aztarrenik!

Arangoititik Errebalera, Bilboko kaleak zabal, argi, palmondo bustiz beteak. Saioak maite zuen semaforo gorriek etengabe geldiaraztea. Maite zuen denbora

gogoetari ematea, herrikideei beha. Semaforo gorrietan taxiaren aurretik igarotzen zirenen ibilerari erreparatzea, herrena zein hankatan zuten igartzea, presaz ari zirenen larridurak diagnostikatzea.

SAIOA: Begira horri, neska ilehori erkin horri, osaba. Historia irakaslea da. XX. mendeko azken laurdenean munduan izandako goseteen eraginak aztertzen ari dira egunotan eskoletan. Arduratuta dago, orduan gertaturikoak errepikatuko diren gero eta zantzu gehiago dakusa.

BITOR: Historia eta literatura gaurkoan? Zortziko txikian, arren, horrela hasten haizenean amaitzea ahaztu egiten zain. Horra nire azken puntua: txakurrak, arratoiak, hostoak zein lurra jaten hasi eta auzoak hiltzen hasiko gaitun hiritarrok, gosea berdintzeko. Bai, antzekoak ikusten ohituta nagon taxi gidaritzan nabilen urteotan.

SAIOA: Misiolari arabar batek jasotako kroniken fotokopiak dira euritik babesten dituen horiek. Liburuzainak zarratzeko tenorea dela ohartarazi die justu kronikaren gordinenean. Milaka lagun alderrai, lapurretan, gurasoak seme-alabak merkezurrean saltzen, ogi beltzaren truke auzokoak lotan daudela erailtzen.

BITOR: Eskertzen dinat ahalegina. Baina egon hadi lasai, Zack Vicenteri egia erauziko zionat. Hutsik egiten ez duen modua aurkitu dinat. Ez naun berehalakoan erotuko.

SAIOA: Utzi egidazu amaitzen, osaba, semaforoa atoan berdatuko da. Loa galduta bizi da gure Historia irakaslea, ongi baitaki norbanako zein gizarteen erabateko suntsipenaren ostean, munduko potentzia handienek egoera baliatuko dutela inperioak kapitalismoaren eredurik anker eta militarrenean hedatzeko. Zapaldutako herrialdeen aberastasunak ahalik eta azkarren eta merkeen eskuratzea izango dute guztiek ere helburu. Halaxe bilakatuko dituzte lekuan lekuko biztanleak hil arteko esklabo.

BITOR: Esnatzean ohartu dun, finean atertzen ez duen euri zantar honengatik ernegatuta dagoela.

SAIOA: Oker zagoz. Historia errepikatuko den susmoak aztoratuta bizi da, lehen ere esan dizut.

BITOR: Potoa bukle paranoiko batean. Horra gura dunan doinu eta neurritarako gaia. Arnasa ere loditzen zaidan, Saioa, ez zagon horrenbesteko zamagaz bizitzerik. Ez ezan munduaren akabera horren serio hartu.

SAIOA: Eta taxiko guanteran daroatzazun liburuok? Taxi ilaran ofiziokideak berbetan aritzen ziren bitartean, eskola zein unibertsitateko atarian nire esperoan, liburua bolantearen gainean beti.

BITOR: Konbenioak behartuta.

SAIOA: Kolektiboak ez, behintzat.

BITOR: Ez hadi ikasle izan aurretik irakasle hasi.

SAIOA: Ez dut gehiago txintik aterako. Trukean, jolasa proposatzen dizut afalosterako: etxerako bidean ikusten dugunaren inbentarioa egin eta ea zeinek zerrenda luzeagoa osatu.

BITOR: Badakin zerrendak osatzen ez didanala irabaziko.

Horrenbeste egunetako atergabeko euriak hiriko trafikoa izugarri moteldua zuen azkenaldian. Hiritarrek lantokietara berandu iristeko ohitura hartu zuten. Konkortuta iristen ziren, arropa bustiak gehitutako zama aldean. Euritakoa zeru, lurrera begira ibiltzen eboluzionatutako espeziea bilakatzen ari ginen. Ilusio saltzaileentzako bazka, argazkilariontzako bakantza. Larraldetarren etxeak 73 metro karratu zituen, bi logela txiki, ezkontideentzat handiena, komuna, egongela eta sukaldea. Senar-emazteak telebistari so,

iloba-osabak berriketan jarduteko ohitura zuten afalostero.

SAIOA: Horra zerrenda.

BITOR: Saria ahaztu dun.

SAIOA: Irabazleak aukeratzen du saria, betiko lez. BBK, Laboral Kutxa, BBVA, El Corte Ingles, Zara, Springfield, Massimo Dutti, Banco Popular, La Caixa, Banco Santander, Guardia Zibila Gobernu Zibilaren atarian, Louis Vuitton, Casino, Eusko Jaurlaritzaren egoitza bat, Jesucristo gurutziltzatua, San Mames.

BITOR: Aiko hemen neurea: bederatzi semaforo, hamahiru zebrabide, lau bider ezkerreko keinukaria, bost bider eskuinekoa. Hogeita hiru bat minutu arrastiko 18:00ak bitartean. Hamabost hurrengo goiza bitartean. Idazkariei aginduta zain izaten diren bezeroak, bataz beste hiru eguneko, Gran Vian beti ere. Telefono bidezko elkarrizketa arranditsuak, bezeroko hiru bat. 26 euro ere irabazita nagon eskupekoetan, dirua ukabiletan gordetzen trebeak ditun.

SAIOA: Hunkigarria, zinez. Neuk irabazi dudanez, aita eta ama limurtu beharko dituzu masterra Bartzelonan ordain diezadaten.

BITOR: Zack Vicente Loiuko aireportuan jaso eta mintegiak dirauen bitartean, asmatu behar dinagu za-

mari izango duen taxista zelan limurtu. Bartzelonak itxarongo hau, berton ere ederto batean filosofa daiteken. Amaitu hasitakoa eta gero gerokoak.

SAIOA. Eta zertan lagunduko digu argazkilari honek?

BITOR: Bezero bat eroan ninan argazki erakusketa batera. Itxaroteko agindu zidanan. Eta barrura sartu nindunan. Irudi haiek gogoan iltzatuta zauzkanat. Argazkilariaren berri izan ninan handik gutxira. Sirian zela, erreportajea egiteko kide zuen kazetaria bahitu egin zitenan. Sarean irakurri ninan. Kaletik zihoazela, fruta erosteko gelditu zunan bera. Bitarte horretan auto batetik bi lagun jaitsi eta kazetaria eroan zitenan. Lepoa zelan mozten zioten erakutsi zitenan gero youtuben. Handik bi hilabetera, burugabetutako kazetariaren emazte eta bi semeak itsasoan ito zitunan.

SAIOA: Hondartzako umea?

BITOR: Aylan Kurdi.

SAIOA: Eta zelan konbentzituko duzu bahiketan parte har dezan.

BITOR: Hik zelan uste dun?

9

Bahiketaren xehetasunak zerrendatzen eman nuen afalostea.

Noiz bahituko dugu?

Zein izango da bakoitzaren zeregina?

Nora eramango dugu bahitua? Eta haren bizkartzaina?

Nor demontre dira Bitor eta Saioa Larralde osabailobak?

Ezinbesteko nuen dirutza eskaini zidan Bitor Larraldek. Erdia hasi orduko. Beste horrenbestegaz Kurdistanera itzul nintekeen, menturaz baita Milwaukeeko ebakuntza ordaindu ere. Kostako zitzaidan diru beltz hura zelan zuritu ebaztea.

Dokumentu saldoa, interneteko estekak, bahiketa ereduak, bahitzaile eta bahituaren arteko balizko elkarrizketak eta, oroz gain nabarmendurik, bahitzaile hasiberriarentzako eskuliburuak, dekalogoak, zerrendak, parpailak, erdeinagarriak, esanekoak.

Bitorrek bat zuen asterisko gorri handiz nabarmendurik.

Erreskatea eskatzeko bahiketa:

1.— Hasteko eta bat, oso garrantzitsua da nor bahituko duzun erabakitzea.

2.— Bahiketan zenbatek parte hartuko duzuen ondo zehaztea ere inportantea da. Baten gorabeheran dena pikutara joan daiteke.

3.— Nork zenbatuko du dirua? Erabaki arte ez zirkinik egin.

4.— Aztertu ezazu luzaroan bahitua non gordeko duzun. Adibidez, zulo batean gordeko baduzu, arduratu zaitez zuloa bahitua baino handiagoa izan dadin.

5.— Ostean hilko ez baduzu, katamalotu aurpegia, bahituek eta poliziek memoria ona izan ohi dute.

6.— Ez egin berbarik bahituagaz ez bada eraztun kosmikoaz edo amniozentesiaren ezinbestekotasunaz. Bahituek eta poliziek sano entzumen garatua izaten dute.

7.— Airea gardena izan dadila. Smog edo antzeko kutsadura oso kaltegarria da bahitzailearen eta bahituaren arteko harremanerako, eta eragin zuzena izan dezake erreskatearen behin betiko kopuruan.

8.— Erabili eskularruak, ez eman eskurik bahituari eskularrurik gabe. Bakteria, germen eta enparau gehienak jendeak elkarri eskua ematetik kutsatzen

dira. Askoz lagun gutxiago hilko lirateke elkarri eskua emateko ohiturari utziko bagenio.

9.— AEBetako bahitzailegaia bazara, lapurtu ezazu bankuren bat. FBIkoek egunero 2.300 bat bahiketa salaketa jasotzen dituzte; eta 2.301garrena bazara, ziurrenik ez dute zure mehatxua aintzat hartuko. Europan sinesgarriagoa da.

10.— Luze hausnartu zenbat eskatuko duzun. Milioi bat eurotik gorakoetara 102 polizia bideratzen dituzte. Gutxiago bada, 15ekin moldatzen dira.

11.— Trukerako biltokiak bi baldintza bete behar ditu: trukerako nahikoa zabala izatea eta gutxienez teilatua erortzear duen eraikin bat hamaika pausotara egotea.

Bahiketena ez zitzaidan arrotza. Mexikon izana nintzen, Ekialde Hurbilean. Ofiziokideen artean egunero piztu beharreko argi gorria genuen. Gerra argazkilariok beti gara bahituri. Bertatik bertara ezagutu zituztenek kontatzen zuten, bahiketa gehienetan, bahituak ez duela berriz ekirik ikusten. Frogatzea egokitu zitzaidan behin baino gehiagotan.

Vicenterenak samurra zirudien, ez gorputz mutilaturik ez senitarteko kontsolaezinik.

Hori bai, Bitor Larralderekikoak argitzeak asko kezkatzen ninduen. Beti hautatu dut norentzat lan egin. Beti jakin izan dut komunikabidearen hariak zein atzamarretatik ari diren dantzari. Oraingoan taxista bat zen, ustez gaitasun gutxikoa inor dantzarazteko.

Errealitatea eta loa bereizten ikasia nintzen aspaldi baina gogoan dut arean artega nengoela gidari misteriotsuarekikoak argitu ezinik.

10

Errebalerainoko bidea oinez egitea erabaki nuen.

Bigarren bilerarako zalantzak zerrendatuta ekartzeko eskatu zidan Bitorrek. Eta goizean goizetik hara eta hona sabel asegarrirako argazkigintzan jardunda, barneko zurrunbiloa baretzeko beta barik eman nuen eguna.

Hiru asteren buruan inauguratu behar nuen erakusketa baten prestaketa lanen erdian, taxista misteriotsu bati mundu mailako neuropsikiatra bizkartzainez babestu bat bahitzen lagundu behar nion, batari zein besteari buruz deus gutxi jakinda. Lana zen lana, eta ni profesionala.

Baina batez ere dirua behar nuen, demaseko diru saldoa.

Ekin nion lanari. Azkura gutxien objektiboek ematen zidaten. Bahiketa hasi eta amaitu, zein lekutatik igaroko ginen biltzea zen nire lehen egitekoa; eta hori urrunerako objektibo bategaz burutuko nuen. Turistentzako plano batean ibilbidea gorritu, argazkiak nondik aterako nituen X batez markatu, leku bakoitzari objektiboa egokitu. Bilbon jada ez zegoen kontrol

kamerarik gabeko kale bazterrik. Zack Vicenteren ibilerak ere urruneko bategaz jasoko nituen, baina zoom bikoitza beharko nuen.

Ulertezinak zitzaizkidan azalpenen arabera, hirugarren laguntzailea izango genuenari bertatik bertara atera behar nizkion. Biziki garrantzitsua zen haren aurpegia ezbairik gabe antzematea. Bitorrek bahiketaren historia geroratu asmo zuen, munduari aurpegiratzeko zeinen gutxi egiten dugun *Egiaren* alde, pertsona bakar batek erantzi diezaiokeela katamaloa *Gezurrari*, norbere esku dagoela askatasuna.

Hori guzti hori, bere buruaz beste egin baino lehen.

Ez nintzen segur koloretan edo zuri-beltzean, ez nintzen batere segur.

Bigarren bilera hartan ezagutu nuen Saioa. Ile beltza eta artez-arteza alde bat, eskuineko begia ostentzeko belarrien pareraino moztua. Azalez zuria. Bitorren erranetara, Baxenabarreko birramatxiren berdina. Neuk eskatuta kontatu zidan apurrarengatik, Ezterenzubin zuten Larralde Minaberritarrek sorlekua. Iragan mendeko lehen erdira arte Garaziko bulego batekoek bertako neska-mutilak hegazkinetan zein trenetan sarrarazten zituzten. Parisera neskak, AEBetara mutilak. Parisen ondo ordaindutako lanbide duina hi-

tzemanda, maitasunaren hiri unibertsalean prostituta lan egitera behartzen zituzten. Mutilek artaldea eta basamortuko bakardadea zuten esperoan. Pantxika Minaberrik ahizparen gutuna jasotzeko zorion mirarizkoa ukan zuelako ez zuen Parisera jo. Senargai zuen Jakes Larralde ez zuen laketzen artzain lanak eta, Ezpeletako azoka egun batean, abeltzain bizkaitar baten ahotik Bilbo inguruko fabrika handietan eskulana behar zutela jakin zuelarik, fite hartu zuen Bizkaia alderako bidea, frantsesa izaki, herren ideologikorik agertu beharrik gabe. Halaxe bizkaitartu ei ziren senar-emazte baxenabartarrak, Basauriko San Migel auzoko baserrian maizter. Munduratu zituzten semealabetatik hiru Tubespan hasiko ziren gazterik beharrean, beste bik AEBetako bidea hartuko zuten, aurrez migratutako osaben abaroan aberastuko zirelakoan. Azkena munduratzeak, aurrekoen bideak ezagutzeak, berea tentuz aukeratzeko beta ekarri zion Bitorri. Ikusita zegoen aita fabrikan katean lanean, egunean hamabi orduz. Gogoan du igandeetan ere bazkalordura arte lan egiten zuela. Lanbrotuta bizi du aitagintzan lanaldi murriztukoa zen gizon haren oroitzapena. Gogoskarbi bakarrak urtean behin, udan, bakantzak Ezterenzubin igarotzen zituztenekoak ditu. Hamabost

egunez, amari zein aitari ihintzak berpizten zizkien urtean zehar porlanak malenkoniatutako begiak. Mendi hegietan orduak igarotzen zituztela oroitzen du Bitorrek. Larreetan eserita, ama eta aita luzaroan egoten zirela isilik, egonean. Ezterengibelen freskatzen zirela bedatseko lehen beroetan. Amatxik sarritan kontatzen zizkion artzain joaki erotutako baxenabartarren tragediak, ordekan behin bakarrizketan behin ardiekilan behin uluka aurkitu zituzten artzain kideen testigantzak. Aitatxik afalosteetan kantatzen zituenetatik gutxi ziren irri karkailetarako.

Semeetarik gazteena zen Bitorrek taxista izatea deliberatu zuen.

11

Txikitero kaleratu berrien algarak eta Doloresen marmarrak papoan borborka, ardoa eta txorizoa eskuetan, zuzenean jantokira egin genuen.

Helburutik desbideratuko gintuzketen berbadarrak saihestuz, Zack Vicenteri buruzko informazio dosi berria zekarren Saioak.

Eta Bitorrek, bestalde, orrialde askotako txosten baten lehena erakutsi zidan: Txosten medikua zen. Gaixoaren izena: Bitor Larralde. Diagnostikoa: Huntington gaitza. Gaixotasunaren eboluzioa: Lehen agerpenak. Bat-bateko dardarak ezkerreko eskuan. Iraupena: minutua eskas.

SAIOA: Osabak argazkilaria zarela esan dit. Gidatzen jakingo duzu.

BITOR: Vicente neuk hartuko dinat, Saioa. Arantzak ez din horren ardurarik.

SAIOA: Ahalik eta gauza gehien egiten dakien jendea behar dugu, osaba. Batek daki zenbateraino okertuko zaigun dena.

ARANTZA: Zertarako ekarri dizkidazu txosten medikuak, Bitor? Zein harreman zehatz dute bahiketarekin?

BITOR: Sendatzen ez banaiz zenbat sufrituko dudan jakin dezazun gura dut.

SAIOA: AEBetara egindako bidaia batean jakin zuen osabak Huntington gaitza duela. Osaba hitz neurtukoa genuen, barea, egonarri handikoa, zuenarekin nahikotzen zena, lantu faltsuen gaitzesle. AEBetatik itzuli zena mutu beste da berbalapikoa, gaur irri bihar malko, bihar edozerengatik agirika dabilena eta etzi zazpi buruko herensugeari aurre egingo liokeen zalduna, herenegun tangada batean ito eta etzilimo tsunamitik bizirik aterako litzatekeena. Saihestu ezinezko heriotzak lanbrotu egiten dio zentzuna batzuetan, jitoan galdutako bela-ontzia da, baina argi baino argiago du xedea. Bakarrik ezingo du erdietsi, lagundu egin beharko diogu.

BITOR: Hemen nago, Saioa. Kontatu diozun ezerk ez du bahiketan eraginik. Horretaz mintzatuko gara taxi bueltaren batean. Gatozen gurera.

SAIOA. Etorkizuna baldintzatuko digun ekintza burutzera goaz, osaba. Burkideok elkar ezagutu beharko dugu, ba!

BITOR: Ondo bidean, biharamunean bezperakoak izango gara, eta nork bere bidea hartuko du, ez beste inorena.

ARANTZA: Bahiketa bat gorabehera.

BITOR: Aztertu ditut zure argazkiak. Ez dut sinesten bahiketa honengatik kirioak dantzan dituzunik.

ARANTZA: Beste batzuk dira nire ametsak. Inor bahitzea ez da eguneroko fantasia.

SAIOA: Eta zein dira ba zure ametsak?

BITOR: Orain ez, faborez, hau gauza serioa da...

SAIOA: Bizitzan izan ditudan pozik handienak lagunek beren ametsak kontatu dizkidatenean izan ditut. Esan, esan, zein dira zure ametsak?

ARANTZA: Zu hasi.

SAIOA: Lore-sorta eta bi musu jaso bezain pronto desitxuratzen den emaztea agertzen zait. Ez da inoiz emakume berbera. Ilea galtzen du lehenik, begiak lekutik ateratzen zaizkio, azala zatika erortzen, hezurrek eztanda egin arte. Maitasun galdu bati egindako omenaldia da.

ARANTZA: Nire ametsetako batean bugainbileak ernetzen dira kare-harrizko museo bateko gela ilunean. Eta lurrak sua hartzen du orbel bihurtzeko suizidatzen diren petaloekin. Sabaitik buruz behera nagoelarik,

garrik gorrienak erreko nauen unean bertan itzartzen naiz.

SAIOA: Nire ametsetan mamuak barka eskean datoz. Ustekabekoa izan dutenez, joan egin behar dutela, itzuliko direla matxura konpondutakoan. Burumakur egiten didate berba. Lasaitzeko erantzuten diet, niretzat iraganak jada ez duela eraginik geroan, ez diedala ihes egingo, ez diedala arrotzei nire burua entregatuko. Mamuek, ilaran, muin ematen didate ezkerreko eskuan.

ARANTZA: Heroiek ere onartu beharko luketela beldurra...

SAIOA: Beste amets batean amatxi dakusat, artoa garantzen. Otzarara, artoagaz batera begiak eta belarriak eta hatzak erortzen dira.

ARANTZA: Ezterenzubin...

SAIOA: Fabrikako txandan hasteko ilaran!

ARANTZA: Fabrikako kea, zuria ala beltza da?

SAIOA: Amatxiren atzamarrak dira gorriak. Gainontzekoak ez du kolorerik.

ARANTZA: Ohartu zara, eguneroko elkarrizketetan, lagunek, etxekoek, ezagunek, ezezagunek esaten dizkigutenetan, zenbat gezur datozen?

SAIOA: Ametsez ari gara. Zein zerikusi dute gezurrekin?

BITOR: Nahikoa da.

SAIOA: Ekin diezaiogun lanari, bai. Elkar ezagutu dugunez, lasaiago nago. Daborduko hautatuko zenueneta, nor izango da ba gure laugarren burkidea?

BITOR: Fidel Imaz.

ARANTZA: Zure laguna al da morroi hori?

12

Aberatsen taxi gidaria zen Fidel Imaz. Deustuko Unibertsitatean Ekonomian lizentziaturik, lan makurretan luzaroan aritu ostean, Munichen hiru urtez aritu zen lanean, beste bi migratzailerekin alokatutako pisuan, sorterriratzeko ezer aurreztu ezinik. Gabonetako opor egunak igarotzera etxeratzeko egun batean, aire-kontrolatzaileen protestaren ondorioz hegaldia ordutan atzeraturik, ikaskide ohi batekin egin zuen topo komunerako bidean.

EMILIO: Fidel Imaz jauna!

FIDEL: Aberasturi, aspaldiko.

EMILIO: Zer habil Munichen?

FIDEL: Azken hiru urteetan esklabo. Dena utzi nian lana lortzearren baina...

EMILIO: Karrera ohorezko matrikulekin erdietsi zuen klaseko listoena esklabo?

FIDEL: Hamar orduko lan jardunean, papurrak kobratzen.

EMILIO: Sentitzen diat, motel.

FIDEL: Eskerrik asko, sufritzen dugunokiko hi beti elkartasunez enpo.

EMILIO: Legez derrigorrik ez dugun arren, ekintza sozialerako partida bat ere badiagu, nazioarteko kooperazio programetarako-eta.

FIDEL: Munduko haurrek goserik izan ez dezaten.

EMILIO: Horixe Iberdrolakook oheburua.

FIDEL: Eta zertan ari haiz Iberdrolan, zehazki? Unibertsitatean irakasle ari hintzela entzuna nian.

EMILIO: Inbertsioen Aholku Batzordeko kidea nauk, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Ekonomiako irakasle izateaz gain.

FIDEL: Alderdikoa, noski.

EMILIO: Nire zerbitzuak eskatzen dituenari laguntzen zioat, kristau onen antzera. Gurasoek ez zitean nire heziketan dirutza alferrik xahutu, hi! Goazemak tabernara, ardo on bat hartuko diagu, gazte denborako kontuez berba egin zezakeagu, poliziek aire-kontroladore madarikatuon protesta konpontzen duten bitartean.

Fidel Imazek ondo gogoan zuen irudia. Emilio Aberasturik karrerako lehen urteko ikaskideen afarian erabat horditurik aitortu zion: “Gure aitak karrera erosi zidak, eskoletara joan besterik ez diat egin beharko. Habil hi neure gerizpean eta ez duk ezerekin kezkatu beharko. Aberasturi tangadekin mozkortzen

zela etorri zitzaion Imazi. Hirugarren ardoak promesak gogoratzeko tenorea zekarkiokeela.

FIDEL: Topa egin dezagun hire patu onaren eta nire zoritxarraren alde!

EMILIO: Osasuna!

FIDEL: Iberdrolakoa ere aitak erosi zian?

EMILIO: Ez hadi baldarra izan. Aitak laguntza txiki bat, bultzadatxoa eman zidaan. Neuk ere egin nian neure ekarpentxoa. Damutu behar ote nauk aitaren semea naizelako? Bizitzak emandako aukerari probetxua atera, ez diat besterik egiten. Eta hala den neurrian, hurkoa lagundu.

FIDEL: Horixe agindu hidan klasekoen afari hartan.

EMILIO: Edan dezagun beste bat, memoria oskarbitu dagidan. Lana emateko promesa egin banian, aurkituko diagu hire neurrikoa. Oraingoz ezin haut ekonomialari gisa proposatu, itxaron zerrenda zagok, aitapontekodun mesedeskeko asko. Zer egiteko prest hago?

Fidel Imazek sekulako lasaitua igarri zuen supituan. Municheko aireportuko OPIentzako tabernako besaulkian eman zien atseden bi urtetako zaputzaldiei. Salbu sentitu zen, Emilio Aberasturiri esker.

BITOR: “Haizeak eraman zituen ordura arteko hodei beltzak”, halaxe aitortu zidan Felix Imazek. Eta halaxe bihurtu zen aberatsen taxista.

Idatzitakoa irakurri zigun Bitorrek, imintziorik gabe, plano, hotz, moldakaitz. Milaka hildako eragindako gerrako parteak irakurtzen zituzten nazioarteko erakundeetako funtzionarioak etorri zitzaizkidan. Kazetari zein argazkilariak hotelen batean elkartzen gintuzten, isiltzeko erregutzen ziguten eta bost minututan aletzen zituzten bidegabekeria ankerrenak. Izukaitz. Bitorri begira-begira otu zitzaidan, erakusketa berrian sartuko nituela berbak esanahi barik irakurtzen ikasi zuten funtzionario haien argazkietako zenbait.

Iberdrolako buruen zein nazioarteko gonbidatuen gidaria da Fidel Imaz egun. Taxista duen osaba Jabierrek aitortu zidan mahai honetan bertan. Laguntza eske etorri zitzaidan, Fidelek etxeratu barik zeroan hirugarren egun batean. Etxean ez duela lanari buruzkorik aipatzen, baina beti deitu edo whatsappa bidaltzen diela etxera itzuliko denetz jakinarazteko.

Lankide batek bere autoa ikusi bide du Concha Jeneralaren kaleko garaje batean.

BITOR: Bilboko putetxe luxuzkoenen bebarruetan. Mokofina.

ARANTZA: Kokaina.

BITOR: Bi goseilun horiek ditugu amu bakar eta Vicente bahitzea lortzeko pasabidea. Imaz edozer egiteko prest ei dago hauts eta azal zuri guriak eskuratzearren.

ARANTZA: Eta zelan batuko duzu gure artaldera?

BITOR: Edo gugaz bat egin edo Iberdrolako argia amatatuko diogula iradokiko diot. Hiruzpalau argazki egin eta mezua mugikorrera.

ARANTZA: Ederto, jaitsiko dut ganbaratik luxuzko prostitutaren mozorroa, atea jo, kamera eta guzti sartu, irri egiteko eskatu... eta fini. Karrera laburrekoa behar du Fidel horrek.

BITOR: Autoa garajetik irteten harrapatzen baduzu nahikoa izango da. Larria sortuko dion mezua bidaliko diogu mugikorrera. Putetxeko txartelean dakar helbidea. Iberdrolakoek bezala emazteak, erraz lotuko dituzte hariak.

ARANTZA: Ez zuk bezain estu.

BITOR: Taxista batek ordu asko ematen ditu bakardadean, hausnarrean. Pentsamendua fokalizatzen ikasi dut, besterik ez.

SAIOA: Eta nik zer egingo dut bitartean, osaba?

BITOR: Bilboko hotel garestienen zerrenda behar dinagu, eraikinen ezaugarri zehatz guztiak barne: helbidea, zenbat solairu, nora ematen duten, beste eraikin batzuetatik gelak ikus daitezkeen, sarreran zenbat lagunek lan egiten duten, zein enpresa arduratzen den garbiketaz, zein segurtasunaz, zein telefono konpainiarekin duten interneta eta abar. Zack Vicente bere hoteleko gelan bertan bahituko dinagu. Etxera mozkor-mozkor itzultzen haizenean legez, Saioa, ilunetan zarata barik pijama eta guzti oheratzea lortu behar dun. Gai izango haiz?

ARANTZA: Prentsaurrekoan entzun nionarengatik, Zack Vicentek ahots indartsua du edonoren arreta bereganatzeko, eta luxuzko hoteletan benetakoa da hormek ere entzun egiten dutela dioen esaera. Harrabots bakarra nahikoa izango du hoteleko zerbitzariak ohartarazteko.

BITOR: Gatozen urratsez urrats. Zehaztuko dizut Vicente zelan mututu, hurrengo bileretan. Orain Fidel Imaz arrantzatu behar dugu.

13

Diru premiak sakailatuta onartu nuen Zack Vicenteren bahiketan laguntzea. Freelance izendunoi egindako argazkia ordaintzen ziguten, eginasmoa egundo ez. Kummabzara eta Juarezera egindako bidaietatik poltsa eta bihotz husturik itzuli nintzen. Hegazkinetik jaitsi, puskak bildu, taxia hartu eta maizter nintzen etxeko alokairuko ispiluan neure burua ikustean ikaratu egin nintzen. Imajinatzen nuen neure buruaren irudia ispiluak itzulitakotik oso bestelakoa zen. Prestatzen ari nintzen erakusketa berriaren argazki sentitu nintzen.

Mundu osoko gatazketan egindako argazkietatik 50 apailatu asmo nituen Rekalde aretoan erakusteko. Argazkien artean, ezkutuan, mikrokamerak ezarriko nituen. Inaugurazioaren egunerako aretokoek, neure eskariz, gonbidatuko zituzten politikariak, bankariak, kirolariak, idazleak, musikariak, eskaleak, poliziak, irakasleak, telebistako aurkezleak, arotzak, iturginak, etxekoandreak, laborariak. Argazkiak ikusita gorputzak zelan erantzuten zien jasoko nuen mikrokamerez. Horixe izango zen benetako erakusketa: gerra irudiek

sorrarazitakoaren irudiena, argazkiak eta erreakzioak aurrez aurre. Van Heuseren egiaren makina nuen gogoan.

Kandilera itzularazi behar nuen memoria, Kummabzara, Juarezera.

Zelalen hitzak ibiltzeko tenorea nuen.

Zelal, etsaiaren basakerietan kamera desarratzen zuela ezagutu nuen ofiziokidea da. Kandilgo mendietan ezagutu genuen elkar, gerrillari kurduei buruzko erreportaje fotografikoa betetzen ari nintzela. Hirugarren egunean hurreratu zitzaidan lehen aldiz. Fusila lurrean utzi eta ISISekoen asasinatzeen argazkiak erakutsi zizkidan.

ZELAL: Zu ere izotzezko etorri zara basamortura. Sendatoki egokira etorri zara.

Zelal zen, beraz, uhertuta nuen odola araztuko zuen ura. Aise gainditu zituen komandanteak ni jagoteko emandako aginduak, ez zidan behin ere estropezu egiten utzi. Ukitu ere egin gabe oratu ninduen eskutik erreportajerako eman genituen egunetan. Lehen egunetan ezin nuen antzeman bihotzeraino iristen zitzaizkidan uhin haiek ziostatena. Esan barik adierazteko kode hura ezezaguna zitzaidan zeharo. Ulertu uste izan nuen, oliba berdearen koloreko soineko prakadu-

na horren galanki zerabilen andrazko hark zeruan eraikitako harrizko hormaren aurka jauzi eginda kolpatzea proposatzen zidala. Desira bihurtu zidala erregai, promesik gabeko balizko musuz, legebako ebazpenez. Lurraren eta haizearen, argiaren eta ilunaren arteko ituna proposatu zidala. Ikus nezan, maita nezan, izan nenkion, ahantzi ez nezan.

Kandiletatik ordekara so zegoela atera nion alboz aurrerakoa dut gogoan iltzatua.

14

Kaliforniara artzain joandako Bitorren anaia zaharrenak bere buruaz beste egin zuela jakinarazteko deitu zuten larraldetarrenera.

BITOR: Familiako ordezkari gisa joan behar izan nuen hiletetara. Atzeratuko zutela ohikoa zen biharamuneko elizkizuna pare bat egunez, sasoiz irits nendin. Etxean entzuna nuen, artzain joandako euskaldun bat baino gehiago ordeketako bakardadean erotzen zela, hilabeteak ardiekin ez beste inorekin harremanik ez izatearen ondorioz zentzuna galtzen zutela zenbaitek.

Hipotesi hori buruan abiatu zen Bitor Kaliforniara. Urteak ziren anaia ikusten ez zuela, telefono bidez Urteberri egunez zoriontzen zuten elkar, laurogeita hamalau bazituen hil aurretik. Lehen aldia zen Euskal Herritik lekora bidaiatuko zuela.

BITOR: Gure aita zena Garaziko bulegora lerrarazi izan balute, artzain nenbilke Ameriketan, milaka ardiren gidari.

ARANTZA: Ez da izango edonorentzako bizimodua...

BITOR: Los Angelesko aireportuan maletaren zain nengoela, itxaron guneko telebistan etengabe errepikatzen ziren irudiak lotu zidaten arreta. Gizon-emakumeak ageri ziren, kartoizko kutxak eskuetan. Batzuk kopetilun, buruagaz ezezka, belauniko. Bestetzuk hortzak estuturik, begiak lekuetatik kanporatu beharrean. Aurkezlearen paparra zeharkatzen zuen titularra behin eta berriro: Lehman Brothers collapse, Lehman Brothers collapse, Lehman Brothers collapse.

Krisia, ongizate ekonomikoaren heriotza, egonkortasunaren desoreka, bizi kalitatearen defuntzioa. Eta enparauak. Porrot egin baino bi egun lehenago erabat fidagarria ei zen AEBetako hirugarren banku boteretsuena zen Lehman Brothers. Wall Street dardarka, milioika estatubatuarren aurrezkiak lurrunduta, inoizko krisi ekonomiko iraunkorrena ate joka. Iloba batek irainduta ziotsonez, Bushen gobernuak hogeita lau ordutan bideratu zizkion milaka milioi Lehman Brothersi diru erreserba federal publikotik. Gobernuaren berehalako laguntza iragarri zuen ministroa John Paulson zen, Lehman Brotherseko zuzendari ohia.

Anaiaren gaubeilan berbagai bakar nagusitu zen munduko ekonomiaren gainbehera, harik eta hildako anaia zaharrenaren seme nagusi Tomek abisua jaso

zuen arte: dei ziezaion aurrezki kutxako zuzendariari arin batean, aitaren urteetako lanetik pilatutako diruak arriskuan zituztela. Gaubeila etenda, etxaldea hustuta, anaiaren alargun Carol eta biak etxeko atarian eseri ziren. Koinatak aitorturik jakin zuen Bitorrek, Huntington gaitzak erasanda hil zuela bere burua anaia amerikanoak.

BITOR: Sudurretatik puzka hasi nintzen. Huntin-zer? Zenbat denbora zeroan gaixo? Noiztik zenekiten? Zergatik ez zeniguten lehenago deitu?

CAROL: Tori, zoaz logelara eta irakurri lasai. Magazine hauetan daukazu gaitzari buruz dakigun oinarrizkoa. Beharrik ez zion gaitzak basamortuan ardien artean erasan, beharrik ondoan gintuen!

Huntington 35-50 urte bitartean azaleratzen den endekapenezko gaitza da. Horren mingarria dira eragiten dituen degenerazio neuronal zein fisikoaren ondorioak, ezen gaixo gehienek burua galdu edo suizidatu egiten baitira gaixotasunaren azken fasean.

BITOR: Oinazearen jasanezinak bultzatuko zuen anaia ehizarako iskilua ahoan desarratzera. Artikuluaren azken zatian irakurritakoak izutu egin ninduen. Gaitz arraro bezain hilgarri hura sendi berekoen ar-

tean transmititzen da. Anaia ote zen gaitza garatu zuen lehena?

Aurrez hiletarako baino ez zen bidaia luzatzea erabaki zuen Bitorrek, sorlekuan egundo entzunbako gaitz hari buruzkoak AEBetan argitzen ahalegintzeko. Iloba gazteenak esanda jakin zuen Harvard Unibertsitatean bazela gaitza urteetan aztertzen zeroatzan ikerketa-taldea. Interneteko estekak, youtubeko bideoak, mundu mailako medikuntza aldizkariak, fotokopiak, zer ez zion eman.

TOM: Guretzat beranduegi izan da.

Egunak eman zituen Bitorrek informazio meategi haietan indusketan. Pipita baten urrezko distira bakarra ikusi zuen. Ilobak lehenago legez.

TOM: Harvarden ez zaituzte hartuko. Gu ere saiatu ginen, lehenago askoren antzera. Ez dituzte bisitak onartzen. Ikerketak diskrezioz egin behar direla argudiatzen dute, emaitzak lortu ahala argitaratuko dituztela unibertsitatearen webgunean, ezer aurreratzekotan gaixoen senideei jakinaraziko dietela aurrena.

BITOR: Estutu ditzagun orduan.

TOM: Nondik? Ikerketa talde hori presidentea bera baino babestuago dago.

BITOR: Izango ditek arrakalaren bat.

TOM: Ihes egiteko, izatekotan. Etsi osaba, beste bidezidorren batetik arinago iritsiko gara. Orain ez dakizu gaitza barruan duzun...

BITOR: Erantzun bat behar diat etxera itzuli aurretik. Dena diagu galtzeko.

Kanpusean hiru pauso eman zituztenerako, paparrean Coparmy nabarmentzen zuten uniformedun lau morroi hurreratu zitzaizkien nora joan asmo zuten mehatxuka. Gaitz arraroen ikerketa taldeagaz berba egin baino ez zutela gura erantzun zien Tom ilobak, Bitor beren-beregi Europatik joandakoa zela, anaiak pairatutako gaitza garatzeko aukera handiak zituela, izan zezatela erruki poxi bat. Trajedun bosgarren tipo batek amultsuki adierazi zien Harvardeko ikerketa-taldeek herritarrei erantzuteko protokoloa dutela, ezin diotela edozein zorori edozein unetan kasu egin, ez ote ziren jabetzen ikerketa-taldea munduko biztanleriaren onerako ari zela, zilborrari begiratzeari utzi eta hurkoen beharrizanak ere aintzat har zitzatela, otoi, heriotza andana ekidin zitzakeen aurkikuntza lanak ezin zirela bakarraren premiengatik eten. Lasai etxeratzeko, ziurrenik ez zela horren larria.

BITOR: Txakur deslaien ostikoak jasota utzi genuen Harvard, herra bilakatuko zenaren lehen pindarrak

isiotuta. Ilobak baretzeko ziostan, alferrekoa zela, hormatzarra lodiegia zela topeka botatzeko. Huntingtona familia berekoen artean suertatzen bazen ere, horrek ez zuela erabat baieztatzen nik ere barruan nekarrenik.

Etxeko nork garatu zuen gaitza? Non? Ezterenzubin? Kalifornian?

Isiltzen ez dakiten galdera malapartatuok!

15

Itzulerako hegazkinean ehotzen hasi zen Bitor gure laguntzari esker gauzatuko zuen betekizuna, ez zion bere buruari horren erraz hiltzen utziko, gaitzari aurrea hartu behar zion, egunen batean agertzekotan, orpoa urrunetik erakusteko. Irakurria zuen pertsonok hilezkortasuna galdutzat dugula heriotzarekiko erresistentziak ez duelako mendeetan aurrerapausorik eman, progresoa ez dela eternitateraino iritsi. Gorputz osoa bizirik iraunarazten ahalegintzen garela kontzientziari dagokiona iraunarazten ahalegindu beharko ginatekeen bitartean. Zack Vicentek jakingo zuen Huntington gaitzak ustelarazi gura zion gorputzari gailenduko zitzaion mekanismo neuronala aktibatzen. Zack Vicentek bazekikeen bizitza luzatzen. Zergatik horrenbeste bizkartzain, horrenbeste segurtasun, horrenbeste sekretu, ez bazen zerbait benetan potoloa zekielako? Irtengo zen egunen batean zulotik eta, orduan, aitzurra goian izango zuen Bitor Larralde.

BITOR: Zack Vicente Bilbora etortzea seinale bat da. Ez da sekula Euskal Herrian izan, Europara ez da usu etortzen. Errepikatuko ez den abagunea da.

ARANTZA: Batez ere zuretzat.

BITOR: Helburua lortu ezean, diruaren bigarren zatia ez duzu jasoko.

ARANTZA: Non egin zenuen talde-dinamikarako ikastaroa? Ez dut egundo eginbako lanengatik kobratu, ez didazu zerurik argitu. Nire lana egunean bertan amaituko dut. Hil aurretik ordaindu ahal izango didazu. Sartuko gara zehaztasunetan? Asteotan lanez gainezka nabil, erakusketa bat prestatu behar dut, bidaia bat antolatu...

BITOR: Lan honek erabateko dedikazioa eskatzen du.

ARANTZA: Hil ala bizikoa, bai. Emango didazu Fidel Imazen helbidea beharrean has nadin?

BITOR: Concha Jenerala, 1 zenbakia. Atariaren eskuinean dagoen garajetik aterako da. Eskuinetara errepidea, ezkerretara kalea. Errepidearen aldetik ez duzu aurrez aurreko oztoporik izango, ezkerrekotik autoak aparkaturik. Eroango zaitut haraino.

ARANTZA: Ez. Ausaz ikusten bazaitu, susmoa hartuko du.

BITOR: Susmagarria ote da taxista taxian ikustea? Bezeroen antzera atzetik irteten bazara, ez du ezer igarriko.

SAIOA: Osaba, agian zeure burua gaurdanik hiltzat eman zenezake, hartara, ez duzu hil beharko. Esna dabilen hildakoa oharkabean bizitzea errazagoa da, inork ezingo zaitu Vicenteren bahiketagaz lotu.

BITOR: Hiltzat eman hil beharrik ez izateko, ez egon bizitzaren aiduru arriskuan jarri beharrik ez izateko. Ez dun ideia txarra Saioa. Zein filosofo drogazaleri ikasi dion?

ARANTZA: Bat nator Bitorregaz. Ondo garatu gabeko plana proposatzen duzu, Saioa. Zelan hilko da Bitor, berpiztu aurretik? Eta garrantzitsuagoa dena, nik egun osoa eman beharko dut Imaz hori noiz ateraako zain kale berean alderik alde? Inor ez da ohartuko turista batek egun osoa daroala kantoi batean jesarrita, garaje bati beha?

SAIOA: Zezen plaza bisita dezakezu, General Concha inguruan denda, jatetxe zein tabernak dagoz, baduzu denbora non eman.

BITOR: Putetxean kamarero dabilen batek mezua igorriko dio nire lagun taxista bati, Imazek joateko keinua egin bezain laster. Hark niri eta nik zuri, Arantza.

ARANTZA: Gamelu aparta zara! Beharrezko dosia ematen diguzu, ez gehiago ez gutxiago.

BITOR: Ardura nagusia nirea da. Aurrelan asko egin dut, eta ez dizkizuet azalduko beharrezkoak ez diren ñabardurak. Ez gaude denbora galtzeko.

Zezen plazatik ehun metrora utzi ninduen Bitorrek. Euri-memela ari zuen, aterkiak babestuko ninduen kalean inoren susmoetarik. Fidel Imazek ez ninduen ezagutzen, ezingo ninduen aterki beltz haren azpian inorengandik bereizi. Langarpean beti dabil etxerik ez duen aterki beltz bat espaloietan alderrai. Eta Turismo Bilbao gida edozein turistaren eskuetan.

Putetxeko Bitorren kontaktuaren deiaren aiduru sartu nintzen El Sol kafetegian. Turismo gidari sinetsiz gero, kafetegia zezenzale amorratuen elkargunea zen, adituen arteko eztabaidaleku famosoa. Kafea ingelesez eskatu eta General Concha kaleari bekoz beko begira egoteko moduan eseri nintzen kristalaren alboko mahaian. Minutu bateko distantziara nengoen, Fidel Imazek kotxea martxan jarri eta garajeko atea erabat zabaldu orduko zoom eraginkorrena jartzeko nahikoa denbora izango nuen.

Mugikorra ezkerreko poltsikoan neraman, dardara eran, bolumena sabaijoka. Ordubetegarrenean, Bilboko gida eta barruko planoa buruz ikasteko imintzio guztiak antzeztu ostean, bokarta platera eta finoa es-

katu nituen, Fidel Imazek etxeratzeko presarik ez zuelakoan. Erakusketarako testuei aurre egiteko tarte egokia iruditu zitzaidan.

Hasiberri zen idazle gazte bati proposatu nion argazki-oinak idatz ziezazkidan. Mundua aldatuko zuen idazlea gura nuen, berba bezatuak basati bilakatu beharrak bizi zuena, benetakotasunaz bipilki arituko zena, ahoan bilo barik, autozentsuraren etsai bat. Eta aldi berean, erretratuak irakurtzen zekiena. Menturaz lar estutu nuen, menturaz bortxaren eraginei buruzko nire argazkiekin adierazi gura nuenaz jabetzeko goizegi zuen idazle hasiberriak. Hidrogenoz beterikoak bidali zizkidan:

Hilobiei, bizirauteko, jaten eman behar zaie.

Giza-espezieak irudietan baino ez du biziraungo.

Heriotzaren gordailua da bizitza.

Bizitza behin eta berriz errepikatzen diren irudiak baino gehiago da.

Itsuak dira esklabo bizi ez diren bakarrak, gainontzekook bizitza osorako kondena dugu.

Zein beharrizan du egiak horrenbeste mozorrotzeko?

Zakarrontzira mugitu nituen denak. Onartuko zidan idazle gazteak ezezkorik? Mezua idazten hasi

nintzaionean telefonoaren bibrazioa sumatu nuen ezkerreko poltsikoan. “Badoatzu. 5 minutu”. Bakarraren hiru laurden behar izan nituen tabernatik garajea bete-betean hartzen zuen argazkia ateratzearren kale ertzera iristeko. Garajeko atea zabaltzen ari zela iragartzen zuen bonbilla keinuka hasi zen. Lexus dirdiratsuak espaloitik ziztuan egin zuen kaleraino, betaurreko beltzekiko tipo batek ezkerretara begiratu, klikklikliklik, eta eskuinetik alde egin zuen. Atzealdeko matrikula zenbakia osorik antzeman nion kalea General Concha zela iradokitzen zuen markoan.

BITOR: Balekoak dira. Emazteak eta Iberdrolakoek amua irentsiko dute.

ARANTZA: Lakioa Fidel Imazen zaman estututa nahikoa dugu. Berehala konturatuko da non egon den badakigula.

SAIOA: Nolanahi dela, xantaia edozeinek onartzeko modukoa da.

ARANTZA: Xantaia ere ez da-eta!

BITOR: Moldatu itzazu mugikorretik azkar bidaltzeko eran. Etxera iritsi bezain laster jaso behar ditu Fidelek, gaizki eginaren damuak izerdi hotza sor dakion.

ARANTZA: Eta etxera joan ez bada?

SAIOA: Honezkero asmatuko zuen emaztea atzipetzeko istorio perfektua...

ARANTZA: Eta gosez ahozabalik dagoen antzara gibel puztua denez emaztea...

BITOR: Lezio feministak gero. Orain gatozen lanera. Konprimitu itzazu argazkiok, zer idatzi asmatzen dudan bitartean.

SAIOA: Utzidazu niri, osaba; herra amiñi bat erne zait Imaz horrekiko.

Narditarren ostatutik lekora joan zitzaidan behakoa, dozena erdi argazki haiek trinkotzen zirela. Nire kamera poliziatzarako erabili nuen lehen aldia al zen? Zenbat argazki atera ote nituen inoren kontrolerako baizik ez zirenak?

Zelal hartu nuen gomutan. Eta Zack Vicente. Eta erakusketa. Eta glaukoma. Erreskadan etorri zitzaizkidan, braustakoan, eskuetatik itzuri egiten zidan hariren batek moropildurik. Betidanik lagun taldeei iskin egiteko nuen joeraz pentsatu nuen, pertsonak bakarka, zuri-beltzean argazkiratzeko zaletasunaz.

Bitor Larraldek ez ninduen ausaz hautatu: nire argazkiak galbahetuta zituen ehunkaren artetik, Bilbon dozenaka ginen argazkigintzara emanak, mugikorrak zenbaturik milaka balizko. Erosi egin ninduen, baze-

kielako salgai nintzela. Bizitza osoa kamera atzean eman ostean, aurrean esku hutsik egoteko arrisku bizian nengoen.

Bitorren haurtzaroko Ezterenzubin salbu nengoke.

16

Fidel Imazi mehatxua bidali eta bost orduren buruan La Granja kafetegian elkartu behar genuen. Saioak Bilboko hotel eta taberna garestienen zerrenda prest izango zuen ordurako. Eta Bitorrek, Imazen erantzun posible guztienen araberako hurrengo urratsak. Nik, kamerak eta loari muzin egiteko pilula zorroa.

Bitorrek abisatu ninduen Imazek gauez ere bidaia franko egiten zuela handi-mandien asegarri. Geltoki bakoitzeko argazki banagaz Imazen lan eremua planoratuko genuen. Bitorrek buruz ikasiko zuenez, ez Zack Vicentek ez bizkartzainek ez zuten deus sumatuko. Sukar zebagaitz batek Imaz ohera kateatuko zuen justu Zack Vicentek Bilbon igaroko zituen bi egunetan. Eta azkenik, Fidel Imazek berak gomendatuko zien nagusiei Bitor Larralde, esperientzia handiko taxista mutua, ordezko aparta.

Bitor: Oilo busti horrek atoan erantzun du baietz, emateko agenda gainbegiratzeko parada, gauerditik aurrera, gonbidatuak atsegin lekuetako batean utzi eta asmatuko duela ordu erdiz gurekin elkartzeko es-

takurua. Deustuibarreko Olagorta kalean 01:00etan zain izango dugula esan diot. Kale iluna da, hutsa.

SAIOA: Bai, nik ere gurago nuke bisaia ikusiko ez balit.

BITOR: Berdin dio, argazkiak ditinagu, ez din Poliziara joko. La Salvetik General Concharako bidaia sarritan egiten duen lankide batek eskuratutako pistola prest zaukanat. Ez dinat uste egingo duenik, baina badaezpada pista faltsuak emango zizkionagu. Mozorroturik, poliziatzat aurkeztuko dinagu geure burua.

ARANTZA: Hezurretaraino busti nahi duzu oiloa, berriz egundo lehortu ez dadin. Baina ahaztu egin zaizu, Fidel Imazek izango duela artzain txakurrik polizien artean.

BITOR: Ezin ditu denak ezagutu, milaka dira. Nazioarteko droga trafikoagaz loturiko kasua dela sinetsaraziko diogu, eta Zack Vicente dela Atlantikoaren beste aldekoen zubi.

SAIOA: Bikaina osaba, brillantea, zinez. Eta zelan dakizu Imazek ez zaituela mozorropean ezagutuko?

BITOR: Gidaritzan dabilen urte gutxietan aberatsentzat baizik ez din lan egin, behekoon ezagupenik batere gabea dun. Eta gainera berdin dio, kolaboratzen ez badu, argazkiak publiko egiteaz gain gaizkidetzat sa-

latuko dugula botako zionat, urte batzuetarako zulora bidaliko dugula. Mela-mela egongo da ordurako oilaskoa.

ARANTZA: Eta bankari, politikari, puta eta drogazaleekin lanean zailduta dagoen oilarra kantari hasiko da urretxindor bihurtuta...

BITOR: Fidel Imazen osaba ondo ezagutzen dut. Ez lidake egundo gezurrik esango. Ilobari gangarra kokainak baizen ez diola tentetzen esan badu, egia izango da. Baraurik harrapatzea, beste zoririk ez dugu behar.

ARANTZA: Hiru egun putetxean igaro ostean gauez lanari lotu behar zaiona tranpa gabe harrapatzea gatxa baino ezinezkoa izango da...

BITOR: Ez dago beste lasterbiderik Zack Vicenterengana hurreratzeko. Beste ezer pentsatu ez baduzue, nire plana beteko dugu. Bi auto erabiliko ditugu. Hi, Saioa, bakarrik joango haiz eta une oro gure aurrean paratuko. Arin gidatzeko dunan trebezia beharko dinagu. Mezua jaso ostean, Imaz berez ere nahikoa artega egongo da autoa mantso gobernatzeko.

Gauerdirako ordu laurden falta zela Fidel Imazen etxepetik berrogeita hamar metrora ginen, Maximo Agirre kalean. Taxia atariaren aurrez aurre zuen, aparkatzea galarazota zegoela zioen lekuan. Kaleari ezker

eskuin begiratuta, atariko atea zarratu orduko zabalik zuen autora arrapaladan sartu eta fite ekin zion bidearri Bihotz Sakraturantz. Gero eskuinera, Euskaldunatik behera Sheratonera. Bitor zuzen zegoen, taxiez gain, auto gutxi Bilboko kaleetan astegun buruzuriko gauerdietan. Saioaren Citroenik gabe, erraz antzemango gintuen Imazek segika.

Alameda Urquijo kaleko La Casa del Bandido tabernan utzi zituen gonbidatuak eta berehala jaso zuen mezua Bitorrek. “20 minuturen buruan”.

Olagorta kalean, bi farolen arteko ilunean aparkatu genituen autoa zein taxia. Bitorrek SP identifikagarria kendu zion Mercedesari, eta Saioaren Citroen C2an sartu zen, Imazen esperoan. Nik Mercedesetik sekuentzia osoa jaso behar nuen argazkietan. Atsedenik hartzen ez zuen euri-zaramak autoko kristalak lanbrotu zituen, gandua sortua zuen erreka bazterreko kalexkan. Bitorren taxi barrutik flashik gabe aterako nituzkeen argazkietan ez zen askorik bereiziko. Erabilgarriak izango ziren argazkietarako leku bila autotik irten eta lau pauso eman nituenean, aurrez aurre Imazen autoagaz egin nuen tupust. Argien errainu itsugarritik babesteko besoekin aurpegia ostentzen nuela,

harrizko gelditu nintzen. Fidel Imaz zitekeena gurmapean desagertu zen etorritako bidetik.

BITOR: Ze ostia egin duzu, baina?!

ARANTZA: Autotik ez nuen argazkirik ateratzerik. Kasualitatea izan da.

BITOR: Kamera lepotik zintzilik ikusiko zintuen. Auskalo zer darabilen buruan.

ARANTZA: Bidali egiozu mezua albait arinen, iritsi berria zarela, non ote dagoen, zain zaudela. Zuek ez zaituzte ikusi!

BITOR: Eta buztana astinduz hezurraren bila bueltatuko da!

SAIOA: Idatzi egiozu mezua, osaba, susmoaren ustelak betiko aldendu baino lehen.

17

Biharamunerako adostu zuen hitzordua Fidel Imazegaz.

BITOR: Zuek barik elkartuko naiz harekin.

Saioagaz etxeratu nintzen. Huntington gaitzak eragindako dardarak eskutik kirioetara goratuta zebilen Bitor. Gaitzaren sintomak egunetik egunera ezkutaezinago zitzaizkiolako kezkatuta zegoen Saioa, estresak gidatzea eragotziko zion beldur.

ARANTZA: Hik egin ditzaken taxista lanak Zack Vicenterekin. Primeran ezagutzen dun hiria.

SAIOA: Eta hik egingo dun prostitutarena?

ARANTZA: Ipurdi estu eta titi txikiokaz, gatx.

SAIOA: Bilboko kolore guztietako polizia gehienek atoan emango lidakete altoa. Nilako henbra pertxenta Mercedes batean...

ARANTZA: Osabaren iloba haizela frogatzerik izango dun. Eta Imazi esan ziezaiokenagu, asmatzeko gezurren bat nagusientzat. Ohituta egongo dun.

SAIOA: Zack Vicentek eta haren bizkartzainek susmoa hartuko liketen. Osabak argi esan din, berak gidatuko duela Vicenterentzat.

ARANTZA: Gizona marruka hasiko luken, prostituta taxista gazte bat zamalkatuko duela pentsatze hutsagaz!

SAIOA: Non sartu ote dun orain Fidel Imaz...

ARANTZA: Lepoa egingo niken honezkero General Conchan dagoela berriro, sudurra sumendi, gintonikak erreskadan, gaueko loreetako bati sustraiak ere jateko irrikaz. Tontorrean izango ditin kirioak Richter eskalan.

SAIOA: Kokaina gehiegi xurgatzen badu, ezingo din zakilpasarekin askorik gozatu. Emazteari deitu eta dena kontatuko niokenan.

ARANTZA: Ez dakienik askorik ez. Filosofia ikasten ari haiz, Saioa. Pentsa ezan: Fidel Imaz, Deustuko Unibertsitatean lizentziatua, Iberdrolako handi-mandi eta sokakoen zamari...

SAIOA: Gizona putetxerik putetxe aritzen dela jakinda, emazte zoriontsuarena antzezten ari dun, bi seme-alaba dituelako. Familiari dena emateko lanpostua utzi zuenez, senarrarena beste diru-iturririk ez du...

ARANTZA: Erakutsiko dinat Ciudad Juarezeko emazte bati atera nion argazkia. Senarrak beste familia bat zinan Tijuanan. Narkoekiko zorra kitatzearren, Tijua-

nako andrea eta alabak hil zituelako espetxeratu zutenean jakin zuen senarraren bizitza paraleloaren berri. Haren masailetan ez da harridura markarik ageri.

SAIOA: Asasku galanta hartuko geniken Imazen emazteak eta biok, oraintxe deitu eta esango banio: “Bai, zure senarra putetxeetan ibiltzen da, argazkiak dauzkagu”.

ARANTZA: Eta hik uste dun, buruan egunero entzuten duen esaldia inoren ahotan entzuteagatik, senarra pikutara bidaliko duela orain arte egin ez badu?

SAIOA: Argazkiak bidaliko zizkionagu!

ARANTZA: Seme-alabengandik ezkuta ditzan? Tira, hots egion, esnatu ezan, goizaldeko ia ordu biak baino ez ditun, ez dun gehiegi asaldatuko.

SAIOA: Sartu ezan hire ironia paternalista hori...

ARANTZA: Sarri egiten dinat. Hik ez? Probatu nahi al dun?

Langarra loditzen ari zuen ninbostratuetan.

Ez nion Saioari esan, Bitorren begiradari nireganako mesfidantza igarri niola, Fidel Imazi mezua bidal ziezaion proposatu nionean. Baina egin zuten hala ere mezu trukea, eta biharamunean elkartuko ziren, Fidel eta Bitor biak bakarrik. Hor konpon!, akituta nengoen.

Diruarengatik ari nintzen bahiketan parte hartzen, ez nion beste ezer zor.

Biharamunean, bazkaltzeko tenorean esnatu nintzen. Begiak desagertzeraino puztuta zituen komuneko ispilukoak. Dutxa epel bat hartu ostean, mugikorrean dei galdu bat, mezu bi, hiru abisuak pantaila betean: 1) Rekalde aretotik, bidaltzeko albait arinen erakusketarako testu laburra; 2) Koktel bateko argazki eske Europa Pressekoak; 3) Bitorrekin biltzeko adarrotsa.

Erakusketarako testua lehenetsi nuen. Idazle hasiberriarenak bazterturik, kafeari kea zerion idazten bukatutakoan:

Potretak
2010-2015

> Memoriak erredentzioa dakar. Oroitzen dugu-na ezerezetik libratu dugu, ahantzitakoa abandonatu. Naturaz gaindiko begi batek dena ikusten badu, denboratik kanpo, oroitzearen eta ahaztearen arteko bereizketa epaiketa bat bihurtzen da, justiziaren irakurketa da, eta beronen arabera, oroitua izatea saria den gisa

berean, ahantzia izatea zigorra da. Industrializatutako mundua, jendarte ekonomikoki garatua, iraganak izuturik, etorkizunarekiko itsu, justiziari sinesgarritasuna erauzi dion oportunismoaren menpe bizi da. Oportunismo honek oro bihurtzen du ikuskizun: natura, historia, sufrimendua, pertsonak, hondamendiak, kirola, sexua, politika. Bilakaera horretarako bitartekoa da kamera. Denbora, argazkietan erakutsi daitekeena da. Hortik aparte ez da deus, ez dago errealitaterik argazki batean kabitzen ez denik.

18

Barra hutsik ari zen kantuan Dolores Nardi arratsaldeko 16:30ean. Saioa eta Bitor hiru minuturen buruan iritsi ziren. Taberna barruan nintzela begiratuko ote zuten aldez aurretik?

Irriz ari ziren zira bustiak eranzten zituztela. Argitu zitzaion bekokia Bitorri bezperako galarrenetik. Neuk ilundu nuen orduan.

ARANTZA: Ordubete baino ez dut. Lana daukat koktel batean.

SAIOA: Zerbitzari oraingoan ere.

ARANTZA: Oilarrak gangarra gorri eta tente maite du, badakin.

BITOR: Gauerdira arteko astia dugu. Fidel Imaz Deustuko San Pedro plazako taxi-geltokian izango da zain. Oraingoan ez dut hankasartzerik onartuko.

ARANTZA: Ez fio. Ezagutuko zaituen lagunen bat izango du Deustuko taxisten artean. Gurmapean ere ikusteko moduko segada bat dirudi. Iberdrolako bizkartzainek jipoitu egingo zaituzte.

BITOR: Ez da ausartuko. Lakioa geuk baizen ezin diogu estutu.

ARANTZA: Lastozko lakioa da, Bitor, puzka desegitekoa. Zein komunikabideri axola zaizkio Fidel Imaz bezalako taxista koitadu drogazale putagose baten ibilerak? Zuk beste zerbait duzu eskilarapean.

Agentzian 1.200 euro BEZ barne agindu zizkidaten dozena bat argazki balekoren truke. Inportanteak behar zuten izan Mazarredoko koktel hartako arrainek, A kategoriakoak gutxienez. Saioari lagun ziezadan proposatu nion, ordu erdirik ez nuela baliatuko, Deusturantz elkarrekin abiatuko ginela gero.

BITOR: Koktelekoak finitutakoan zoazte Deustura eta hautatu argazkiak urrundik ateratzeko leku diskreturen bat. Gaur ez da ganduaren eragozpenik izango. Saioa, hik estreinatu hitzan arropak eta prestatu mugikorraren bateria gaubeilarako.

Mazarredo Zumardiko 77ra joan nintzen Saioaren Citroenean. Miró hotelaren atarian, beigea eta granatea tartekatzen zituen jaka, kapelu eta prakekiko mandatu-mutilak lagundu ninduen barruraino. Saioak zain egon beharko zuen. 30 minutu nituen argazkietarako. Prentsa arduradunak zinta gorri baten atzean lerrokatu gintuen. Launaka paratu ziren argazkien aldera. Soinekoak bakan, traje ilun, gorbata kolore bereko,

ile koipetsu albora etzandakoak gehiengo. Buruan bilorik gabeko batengan desarratu nuen azkena.

SAIOA: Lirain atera ditun beleak?

ARANTZA: Beleak... eta sai handi bat ere bai. Aiko hemen!

SAIOA: Ez dinat bat bera ezagutzen.

ARANTZA: Hauxe dun John Paulson!, gure bahitugaiaren adiskide mina, Zack Vicentek mundutarron ongizaterako mugarria izango den albistea BECen ematea ahalbidetu duen aztia.

SAIOA: Urde zikina.

ARANTZA: Bistakotik harago, Saioa, bistakotik harago. Orain begira egien hauei.

SAIOA: Ez dinat *El Correo* irakurtzeko ohiturarik, hain gutxi aberatsen saltsa-maltsetan txistatzeko.

ARANTZA: Aiko hemen, Bilboko eraikinik altueneko kadira gorenean laketzen dena. Aiko hemen, talaia horretatik begirakune nagi batera dagoen unibertsitateko errektorea. Beste hau ezagutuko dun, filologiarik ikasi ez zuen gure alkate unibertsala.

SAIOA: Hori ezagutzen dinat.

ARANTZA: Begiratu fondoko pertxentei.

SAIOA: Gaueko lore pinpirinak.

ARANTZA: Paulsonen aperitifak... Eta aldamenean, zerbitzari...

SAIOA: ...gure Imaz!

ARANTZA: Zack Vicentek aztarnari bidaliko zuen Paulson, astebete lehenago, iristen denerako sasiak garbitu eta balizko pozoi guztiak dastatzeko beta izan dezan.

SAIOA: Eta noski, Fidel Imaz jarriko diote itsumutil.

Miró hoteletik ihes egin eta Errebalera abiatu ginen. Saioa Narditik bi karrikara bizi zen ama, aita, ahizpa eta osabagaz. Autoan itxaroteko esan zidan, etxekoek ez zutela usaindu behar egosten ari ginenaren sundarik. Motxila lepoan bueltatu zen ordu erdigarrenera, atzeko eserlekuetara.

SAIOA: Gidatzen jakingo dun, eztona? Goazeman Deusturantz, bidean mozorrotuko naun.

ARANTZA: Urteak dira gidatzen ez dudala. Erdi ahaztuta dinat.

SAIOA: Eta zelan moldatu haiz munduan barrena?

ARANTZA: Hegazkinetan eta taxietan. Gainontzeko guztiak arriskutsuak ditun. Alokatutako autoen azpian egiten dute eztanda bonbarik gehienek. Ikusita nagon gorri zegoen semaforoa profitatuz emakumea bere autotik bahitzen.

SAIOA: Osabarena umeen olgeta dela hiretzat, ez ezan ukatu.

ARANTZA: Dirua behar dinat, badakin.

SAIOA: Ez zekinat zer behar dunan, hori dun egia.

Atzerako ispilutik ari ginen elkarri begira, Saioak arropak eranzten zituen bitartean. Urteak neramatzan gidatu barik, hilabeteak ezpainik miazkatzeke, mendeak berna gazte zuri gogorrak ferekatu guran. Igarri egin zidan. Begiekaz irri egin zuen iztarteraino laburtutako prakak janztean.

ARANTZA: Nik kazetaritza lana izan dela argudiatu zezakenat kartzela zigorra saihesteko, erreportaje saritugaia ontzeko ezinbestekoa nuela Poliziari bahiketaren berri ez ematea. Hik, ostera, sasiratu beste irtenbiderik ez dun izango ziegari iskin egiteko. Bitorrek ez hau ezinbesteko, zergatik laguntzen dion?

SAIOA: Osaba dinat, ia aitaren pareko. Ezin zionat bakarrik hiltzen utzi.

ARANTZA: Eta Zack Vicentek ez badaki Huntingtona zelan sendatu?

SAIOA: Fede kontua dun.

ARANTZA: Ez dinat sinesten. Eskolak ematen egon haiteke urte gutxi batzuk barru, betirako soldata pol-

tsikoratu eta gogoeta filosofikoetan gura beste galtzeko denbora izan.

SAIOA: Eta horixe maite dinat. Osabak bazakin ez naizela tuntuna. Baina sinetsita zagon bere irakaspenei esker baino ez ditudala oinak lurrean pausatuko. Okerra zuzendu behar zionat.

Eskubeteko bular zuri harroak, adats beltz airoski astindua. Irria begietatik ezpainetara jaitsi zitzaion. Lepoa berez luzatu zitzaidan ispiluari eskean. Ez zen ez Fidel Imazik ez John Paulsonik ez Zack Vicenterik Saioa desiratuko ez zuenik.

Zientoka argazkitarako zegoen. Oraingoan memoriak ez dit hutsik egin. Imajina hari besarkatutako sentipen hura ez dut abandonatu, aldean daroat emakume gazte baten gorputzak elektrifikatzen nauenero.

Zelalen aurpegia du Saioaren gorputzak.

SAIOA: Goazeman, Imaz zantar horren emaztea mendekatzeko ordua dun.

19

Bitor Larralde eta Fidel Imazen hitzordua baino ordubete lehenago iritsi ginen Deustura. Hizkuntza Eskolaren atzeko kalean autoa aparkatuta, zintarri beretik hurrengo karrikaraino, eskuinetara gora, ezkerretara abiapunturantz, San Pedro plazako taxi-geltokiari argazkiak ateratzeko kantoira arte.

Hamaika pauso atzeragoko kafetegian, osabari ostendutako planaren berri eman zidan Saioak. Lehen hitzorduan gertaturikoagatik mesfidati, Imaz ordua baino lehenago iritsiko zen, taxista lagunagaz berba egin, ezer susmagarririk antzeman zuen galdetu, ezetzarekin lasaitu eta xantaiagilearekin zelan jokatu errepasatzeko. Orduan agertuko zitzaion Saioa, soineko gorria azalera atxikia gabardinapean, taxian etxera eroateko erreguka. Imazek beste taxista bati galdegiteko esango zion, zerbitzuz kanpo zegoela bera, ezetz erantzungo zion Saioak, gabardina zabalik haginkada iradokiz. Unibertsitateko lagun baten etxera gidatuko zuen Saioak Imaz, dirua etxean zuela argudiatuta igotzera gonbidatuko zuen. Imazek itxaroteko erregutuko zion, saihestu ezinezko hitzorduaren

amaieran itzuliko zela, ordainduko ziola sosik gabe ere.

Nik astia izango nuen Bitorren eta Imazen arteko enkontrutik Saioaren lagunaren etxera joan eta ezkututik argazkiak ateratzeko.

SAIOA: Dibortziatzeko auzian hire argazkiak hil edo bizikoak izango ditun, epaileak Imazen emaztearen alde egin dezan.

ARANTZA: Enamoratu egin haiz Imazegaz, gero!

SAIOA: Lagunduko didan, ezta?

ARANTZA: Bitorrek dirutza eskaini zidaan. Hik?

Fidel Imaz barik, Bitor Larralde iritsi zen orduantxe San Pedro plazara. Taxia ilararen azkenean aparkatu, autotik alde guztietara begira jaitsi eta ofiziokideak agurtu zituen banan-banan, Imazen konfidentea identifikatu guran. Gaztea zirudien euritarako jaka beltzeko burusoil bategaz luzaroan ekin zion. Ezetz imintzioka, burua eta bi eskuak konpasean batzuetan, kontrara bestetan, bi pauso atzera, bakarra aurrera, besoak gerrira, berriz ezezka. Taxian sartu aurretik, atzamar luzea errebolber mehatxari bilakaturik agurtu zuen Bitorrek gaztea. Betetzekoa zirudien abisuak.

Imazek hamar minutura gelditu zuen taxia Bitorrek utzitako lekuan. Jaka beltzeko burusoila gidariaren

leiho parera iritsi orduko, Bitor atzeko kaleko Bordatxo tabernatik karraderan sartu zen Imazen taxian. Abiadura berean alde egin zuen burusoilak.

Desadostasunezkoak ziruditen keinuka ari ziren Imaz eta Larralde. Gutxira, San Pedro plazako geltokitik Lehendakari Agirre hartu eta Iberdrolako dorrerantz egin zutenean, galdu egin nituen.

Banoatzu, mezua bidali nion Saioari.

Ordu eta erdi eskas iragan ziren Fidel Imazek Bitor Larralde taxian hartu zuenetik Saioaren tranpalekura etorri zenera arte. Egongelara ematen zuen despentsan kokatu ninduen Saioak, tauki batean, sei metro eskasera, atearen herena zabalik. Musikagailua isiotu zuen, Imazek nire kameraren klikak entzun ez zitzan. Ispilukoari oniritzia emanda hartu zuen sakon arnasa.

Atetik sartu orduko gerritik oratu zuen Imazek, mingaina eskaini zion Saioak. Kamerak osorik hartuko zuen planora erakarri zuen gizona. Soineko gorria gerrira altxatu, kuleroak erantzi eta besaulkian lau hankatan belaunikatu zen. Imazek luzaroan jo zion larrua, burua otsoki goratuz, garaile, alarau, irri eta orro, gozamenak kokainari gaina hartu zion arte. Saioaren indiferentziazko bisaia plazerezko bilakatu zen, mina zirudiena atsegin.

ARANTZA: Disfrutatu egin dun.

SAIOA: Hik ere bai?

ARANTZA: Okaztagarria izan dun. Tximino bisaizuria, bonoboa, makako japoniarra ematen huen.

SAIOA: Burua deslaitzea besterik ez dun, beste zerbaitetan pentsatzea.

ARANTZA: Descartes etorri zain bisitan orduan.

SAIOA: Zizek, hara bestea! Erakutsiko dizkidan argazkiak?

Lantzerrari bustitzen utzi nion etxera oinez itzultzen nintzelarik.

Mugikorrean Bitorren dei zaparrada, mezu bakarrerako: biharamunean goizeko 9:00etan zain izango nuen etxepean.

Beste ezer baino lehen, ordenagailura deskargatu nituen argazkiak. Luzaz behatu nituen, Saioaren keinu bakoitzari baratz, gaitzustean. Ondoren neure buruari atera nizkion, biluzik, logelako gorputz osoko ispiluaren aurrean. Emeske nituen begiak, atzamar luzea klitoria zurrunbiloka zorabiarazteko prest. Euria ari zuen kanpoan. Loak irribarretsu eta kulero barik hartu ninduen. Ametsa gero etorri zen. Eta ez gau bakarrerako maizter, luzarorako gerizpe baino:

Gandua dago, bisuts trinkoa, lainobera iluna. Ortozik nago, behatzetako azazkalak ubel. Asfaltoan oinez, errepide bateko lerro zuri etenik gabekoari segika. Ezin ditut nire oinetako azazkal ubelduak lerro zuriaren gainean besterik ikusi, harik eta fusil bategaz estropezu egin dudan arte. Burua altxatzen dut, atze, ezker, eskuin, aurrera begiratzen dut. Argi urdina distantzia neurtezinera. Banoakio. Ile beltzeko emakume batek eusten dio argiari, hurreratzen natzaion heinean zahartzen dihardu, ilea laburtzen zaio, bibotea ageri du sudurpean basotsu, argia eskaintzen dit... eta oratzera noanean, lurraren kontra txikitzen du, irri zuri faltsua dagien bitartean.

Urteetan asaldatzen nauen ametsetako bat da, artega esnarazten nauenetakoa. Amets okerren bat dudanero galdera ikurrak zamatzen zaizkit egun osorako begizuloetan dingilizka. Eta beti datoz desorduetan.

20

Klaxon hotsak esnatu ninduen. Kamerak aldean armosetako asti barik sartu nintzen taxian. Aurrez aurreko begirada saihestuz agurtu ninduen Bitorrek.

BITOR: Aginduak bete eta kito, besterik ez dizut eskatzen. Ez da bitan gertatuko. Carltonera goaz, *Gran Hotel Turismo* aldizkarirako argazkiak aterako dituzu, sarreratik hasi eta goiko geletaraino. Saioak mezu faltsua bidali die, hotelaren urteurrenaren karietara, zortzi-hamar orrialdeko koloretako erreportajea burutu asmo duela aldizkariak. Baiezkoa eman diote.

ARANTZA: Ados.

BITOR: Karnetagaz batera, hemen daukazun mezuaren kopia erakutsita nahieran ibiliko zara. Zack Vicenteri ziurrenik bertako batean emango diotela ostatu aurreratu dit Imazek, haren mailakoentzat habia urrezkoa delako. Litekeena da barruan bi gela dituen suite nagusia eskatzea. Atera egizkiozu hari argazki gehien: sarrerak, balkoia, gaindegira igotzeko eskaileretarainoko bidea. Den-dena xeheki gura dut. Argazkietan antzeman behar ditugu batetik besterako me-

troak, ahalik eta doien. Ezin dugu pauso bakar bat oker eman.

ARANTZA: Homoplatoaren ezkerretara dut interruptorea. Sakatu egiozu, mesedez.

BITOR: Koplarik ez. Iluntzean Doloresenean elkartzen garenerako pendrive honetan bildu itzazu argazkiak. Eta ezabatu zure kameretatik.

ARANTZA: Ez dakit gaur egiteko astirik izango ote dudan, erakusketaren antolatzaileekin hitzordua daukat.

BITOR: Aurreratu batzar hori. Asmatuko duzu estakururen bat. Nardin 20:00etan.

ARANTZA: Imazek aise irentsi du amua, beraz.

BITOR: Zure lana argazkiak ateratzea da. Imazekikoak neure kontu. Ez da horren gatxa. Gero arte.

ARANTZA: Aizu... zuk ba al dakizu bonoboek, bisaizuri tximinoek, makako japoniarrek noiz egiten duten apotan?

Hotelaren ataurreko aterpearen babesean barik, Rodriguez Ariasen utzi gintuen Saioa eta biok, kukuarenak eginez, bera hotelaren segurtasun kameretatik salbu.

SAIOA: Carltoneko argazki historikoa etxeko egongelan dugu, zeuk oparitua, oker ez banago, ezta osaba?

BITOR: Agirre, De la Torre, Leizaola, Monzon, Espinosa, Aznar, De los Hoyos, Gracia, Nardiz eta Astigarrabia.

ARANTZA: Gurean ez dugu inoiz futbola maite izan!

Saioak aldizkariko zuzendariaren izenean bidalitako mezuaren arabera, hotelaren urteurrena ospatzeko erreportaje zentrala argitaratuko genuen *Gran Hotel Turismo*n. Carltoneko komunikazio arduradunak, mezuaren kopia eskuartean, agindu zehatza eman zion mandatugileari ate guztiak zabal ziezazkidan.

SAIOA: Hik ere izango ditun mitoak...

ARANTZA: Hamaikakoa gura dun? Abaitua, Leibovitz, Modotti, Maier, Taro, Lange, Cole, Addario, Bollack, Iturralde eta Lubaki.

SAIOA: Euskaldunak munduko selekzioan?

ARANTZA: Gure etxean liburu gutxi izaten genituen. Aitak ez zuen biblia besterik irakurtzen. Amak irudia maite zuen: Ojanguren, Lekuona. Uste dinat Emmanuel Radnitzky eta Castelaogaz enamoraturik bizi zela: “Hildakoak alfer hutsak dira. Bizitzaz etsi dutenean erori egiten dira, zerraldo, eta luze gelditzen dira

oso jarrera barregarrian, eta aldizka, lizunean. Nolanahi erortzen dira eta ez dira ostera zutitzen. Esanen nuke hobeki atseden hartzeko geldiarazten dituztela arnasa eta bihotza. Begiak zabalik geratzeko gauza izanen lirateke esku amultsu batek estaliko ez balizkie. Galtza-alkandoratan geratuko lirateke ez balituzte jantziko hartzearren, duintasunez, auzokoen azken bisita. Badakite familiari ematen dioten nahigabea, eta hala ere ez dira iratzartzen. Badakite ehorzketa batek balio duena, eta betiko hiltzen dira alfer alaenak. Negar egiten dute haien inguruan haurrek, emazteak eta amaginarrebak, eta zerraldo jarraitzen dute. Zurezko kutxa batean daramatzate eta ez dira izutzen. Badaramatzate lurpean estaltzeko eta ez dute protestarik egiten. Irentsi behar ditu lurrak, eta nagiok nahiago dute haragia galdu, bizitzara ez itzultzekotan. Ireki ezazue kontuz zazpi urteko gorpu baten zerraldoa eta ez dituzue hezurrak eta zapatak besterik aurkituko; baina ehorzleak utzi zituen jarrera bera edukiko dute”.

SAIOA: Begiak zabalik geratuko lirateke, esku amultsu batek estaliko ez balizkie... Gustatzen zaidan.

ARANTZA: Pasarte hori errezitatzen zidanan amak goibel sumatzen ninduenero, berari amamak legez.

SAIOA: Berezia, hire ama.

ARANTZA: Ezkondu aurretik margotu ere egiten zinan. Eta bere osaba amerikanoak ekarritako kamera txiki bategaz ateratako argazkiak ere erakutsi zizkidanan behin. Eta bazinan urretan gordetako argazki liburu bat, Eulalia Abaituarena. Emakume haien argazkiek bete zizkidatenan umetan bakarrik igarotako ordueta-ko hormak.

SAIOA: Eta orain ogibide ditunan gerrako argazkiek bakardadea baino okerragorik badela sinesten laguntzen dinate.

ARANTZA: Euria bota ahalean ari zen egun batean, Bidebarrieta liburutegian abarotu nindunan. Zer irakurri ez nekiela *Russian war photograhps 1941-45* argazki liburua hartu ninan eskuartean. Arranditsua irudituko zain, baina uste dinat nire bizitza bitan banatu zutela argazki haiek.

SAIOA: Besteen sufrimenduagaz enpatizatzeak erruduntasuna badakarkigu, inguru afektibo hurbileko norbaitekiko zorra dugun seinale.

ARANTZA: Gero eta filosofia merkeagoa irakasten dizuete.

SAIOA: Psikoanalisia baitezpadakoa dun.

ARANTZA: Zertarako?

SAIOA: Egiten duguna ulertzeko.

ARANTZA: Hara, horregatik dun lanbroa zurikaila.

SAIOA: Horregatik ditun maiteago argazkiak zuribeltzean, horregatik janzten haiz beti beltzez, horregatik erakartzen hau nire azal zuriak. Eta zuen ama, zergatik buztartu zen apaizkume putazale batekin?

21

Arratsaldean, giroa okertzen hasi zela iruditu zitzaidan.

BITOR: Kaixo, neskak. Edatekorik? Pintxorik? Imazek mezua bidali dit. Zack Vicentek Carltonen hartuko du ostatu. Suite inperialean.

SAIOA: Hori lehen ere bazenekien.

BITOR: Orain erabat ziurtatu zidan.

SAIOA: Lehen erdizka?

BITOR: Zer esan gura dun?

SAIOA: Eta zuk, zer ez diguzu esan gura?

Saioak gogor egin zion kedar. Zekien guztiaren berri xeheki ematen ez bazigun ez genuela bahiketan parte hartuko mehatxatu zuen, ez zuela balio informazioa liserituta ekartzea, komuneko papertzat ote gintuen. Nigaz galdua zuen patxadaz erantzun zion Bitorrek Saioari, ulertzen zuela bahiketaren eguna hurreratu ahala, ardurak hartu, ekintzak burutzeko tenorea zetorrelarik, urduri egotea eta baretzeko, jakin beharrekoak bagenekizkiela. Ezkerreko eskuak zegion dardarak salatzen zuen.

Ordenagailua piztu eta power-point batean nire argazkien gainean sortutako planoa erakutsi zigun. Sarreratik hasi eta suite inperialeraino, Zack Vicentek emango zituzkeen urrats guztiak irudikatu zituen, baita zenbat denbora beharko zukeen ere. Bitorren aurreikuspenak betez gero, Vicenteren besotik sartuko zen Saioa, bizkartzaina hoteleko sarreran utzita, Vicenteri buruz sarean irakurritakoak gogoan, ez baitzuen lar nabarmendu gura izaten, hain gutxi (Bitorren eranskina izan zen hau), prostituta gazte batek laguntzen zuenetan.

Hoteleko mandatumutilak maletak jasotzeko imintzioa egitean, Bitorrek erantzungo zion, Vicente jaunaren estantzia ordainduko zuen enpresaburuak agindua ziola Vicente jaunaren maletak taxitik logelaraino berak ez beste inork eroatea, enpresak eskaintzen zituen zerbitzuetarik ohargarrienetakoa zela bezeroarekiko hurbiltasuna eta ondasunekiko segurtasuna.

Maletak logelaraino barruraino eroan ostean, taxia sarreratik kendu eta Azkuna Zentroko aparkalekuan utziko zuen Bitorrek. Larruzko karpeta besapean, Carltonera itzuli eta Vicente jaunari ahaztu egin zitzaion aitzakiapean, suite inperialeraino sartuko zen, berriz

ez itzultzeko. Taxia hoteleko ataritik kenduta, inor ez zen ohartuko taxista bezeroaren gelatik irten zenetz.

Saioa astiro-astiro biluzten ariko zen, 250 metroko suitean gelaz gela pasieran, Vicente artzain-zakur, alfonbrak adurrez arrastotzen. Txirrina entzun orduko maldizioka zabalduko zuen atea: *Zer karpeta eta zer ostia, alde egin ezak!* Orduan Saioak labanaren punta kokotean sartuko zion, Bitorrek ahoa mukizapiarekin estali, aulki batera bridekin lotu eta bahitua izan zela azalduko zioten.

ARANTZA: Plan xehatuagorik!

BITOR: Potroetaraino nago zure ironia merkeaz!

SAIOA: Egia da, beldurrak ostentzeko erabiltzen duzula ematen du. Aspergarria zara.

ARANTZA: Negar egin ezinez barre egiten duen tristezia dela zioen gure amak, poetaren bati irakurria, ziur aski.

BITOR: Zu Vicenteren suitean zelan sarrarazi da orain asmatu behar duguna. Bi egun barru elkartuko gara berriz. Garunak urtzeko sasoia da, eragin errotarriari, ur faltarik ez daukagu. Eta Arantza, ironia erantzita etorri, otoi.

ARANTZA: Barkatuko didazue. Urduri nabil... Badakizue zenbat lasaitzen nauen barre egiteak.

SAIOA: Zer dun, ba?

ARANTZA: Ikusmena galtzen ari naun, itsutzeraino

SAIOA: Hirekin ere haserretu beharko naun?

ARANTZA: Osabak ez din ezer kontatu? Ez dinat ezezagunei nire gaixotasunen berri emateko ohiturarik. Glaukoma, bi begietan, sano aurreratua. Tentsioa altuegi, antza.

SAIOA: Zuk bazenekien, osaba?

Talde lanerako giroa asko lardaskatzen ari zitzaigun, begi bakarretik ari ginen negarrez hirurok ere. Gatxa zen lanbrope zurikail hartan ezer bereiztea. Elkar ezagutu ahala, nork zenbat ezkutatzen genuen asmatzea aurrera egiteko benetako aingura bihurtzen ari zitzaigun. Banakako musean ari ote ginen, itzalgaizka albokoak ohartzeke, ordu txikietan isil-ostuka oheratzen. Horrenbestetan legez, egiak sinestezina zirudien. Ohiz kanpokotik deus gutxi. Beti dago aitzakiaren bat egiarik ez esateko. Saioak eta Bitorrek bazuketen andana, nire besteko piloa.

Jakako poltsan disimulatu zuen Bitorrek eskuko ikara, Doloresenetik zerupeko euri-zirtzilera irten ginenean. Dardarak sarriagotzen ari zitzaizkion, Huntington belarrira xuxurlaka zebilkion: *Banatorrek,*

ikusten duk itzala hodeiertzean? Nire buruarena duk, laster natorrek osorik. Zer egin behar duk?

Taxistaren egonarria galarazten ari nintzaiola adierazi zidan agurreko begikuneak. Saioak bekainekin batera sorbaldak goratuz eman zion arrazoia osabari. Barruko egonezina baretzeko ukendua nuen barrea, disimulatzeko agertoki paregabea eskaintzen zidan. Bahiketakideak ez ziren iritzi berekoak, antza.

Ez nuen euritakorik zabaldu eta mela-mela iritsi nintzen etxera.

Dutxa beroa hartu, afaldu eta e-posta irakurtzeari ekin nion. Rekalde aretokoen erakusketari buruzko itaunak, newsletterrak, gerra argazkilarien nazioarteko posta-zerrendan Turkiako Armadaren bonbardaketa eta Suruceko atentatu zein atxiloketei buruzko testigantzak, beste koktel bateko sorta osatzeko lan eskaintza. Atsedena behar nuen, errota gelditu, tentsioak glaukoma indartu baino ez zidan egiten, medikuak azken kontsultan errepikatu zidan: *Egoera traumatikoak saihestu behar dituzu edo AEBetako Milwaukeera joan LASIK bidezko ebakuntza egin diezazuten, konturatu orduko erabat itsu bizi gura ez baduzu.*

Gogoa Surucen nuen. Zelal ote zen hildako edo atxilotuetarik bat? Gerra argazkilarion posta-zerren-

dan galdetu nuen nor zebilen inguruetan, Turkiako Gobernuak argitaratu ote zuen hildakoen eta atxilotuen zerrenda. Eta PKK-k? Erantzuna ez zen berehalakoan iritsiko.

Rekalde aretokoak prentsa-txostenerako testu eta argazkiaren aiduru nituen. Argazkiak aspaldi nituen galbaheturik, berbak haurgintza minetan. Erakusketaren adierazgarri erakargarria izango zen potreta aukeratu behar nuen 50en artean. Buruko minez laga nuen hautaketa biharamunerako. Ikusmen galtzea horren erraz atzeratu ahalko balitz!

22

Berandu entzun nuen Saioaren deiak itzartu nin-duen. Mezuan zioenez, Imazek Bitorri albait arinen bil-tzeko proposatu zion, informazio sano garrantzitsua zuela jakinarazteko. Edo hori ulertu uste izan zuen Saioak, osaba zelatatzen aritu zenean. *Iluntzera arte, lanera noa* esanda agurtu zituen Bitorrek etxekoak, Saioari begiratu ere egin barik. Susmo txarren malgu-kiak ziztuan egin zion salto Saioari. Atzetik joango zi-tzaion, Imazegaz zertan ari zen jakiteko. Beragaz joa-tea gura zuen.

Egun batez bahiketari buruzkoak alboratu asmo ni-tuen, Zelali, erakusketari eta glaukomari eskaini arre-ta osoa.

General Conchan zegoela eta joateko ziostan Saio-ak, joateko arin, Bitor eta Imaz andrazko bategaz bil-duta zegoazela, emazte hura zein zen ikertzea zegoki-gula.

Zilar koloreko Mercedes C 320aren aurreko eser-lekuetan zain zeuden bi gizonezkoei ilea mototsean luze bilduta belaunetarainoko urre koloreko gabardina besarkatzen zuen beltzarana bildu zitzaien. Ataritik ta-

xirainoko bidea euriak bustitzerik ez balu legez egin zuela dut gogoan, pauso bakoitzean zapaltzen zuen lurrari abisua emanez: *Zorionekoa zara, hauxe duzu behetik gora ikusteko izango duzun aukera bakarra, ez dut oinik zure gainean berriz pausatuko*. Akorduan dut argazkiak egiten ari nintzaiola kameraren gainetik begiratu nuela, sorgor, irri konplize batek ihes zegidala.

SAIOA: Zertan ari ote dira? Zergatik ez dira putetxean batzartu?

ARANTZA: Beltxarga ederra dun.

SAIOA: Poliziek mikroak izango dituztelako putetxean? Baina eurak badira bezero preferentzialak? Komisarian elkarri adarra joko diote, ziur, zeinek eutsi dion luzaroen, zeinek eragin dizkion intziri gehien putari...

ARANTZA: Hire osabaren taxia dun. Galdetu egion. Ni banoan, ez dinat bihar arte ezer jakin gura. Dirua lortzeko bankuren bat lapurtzea hausnartzen hasiko naun. Honen guzti honen kiratsa jasanezina dun.

SAIOA: Izango din motiboren bat horrela jokatzeko. Ez ezan arinki epaitu.

ARANTZA: Epelak bota hizkion atzo, gaur buruhotz jokatzeko diostan.

SAIOA: Ohartu bainaiz osabak gu babesteko gorde asmo duela informazioa.

ARANTZA: Kaka zipriztinek ez diezaguten orbanik utzi.

SAIOA: Hain zuzen. Ihesbide ahalik eta gutxien zarratu gura dizkigula uste dinat.

Desoreka bipolarraren albo kalteak. Ez ote zen inor osasuntsu munduan?

ARANTZA: Esango didan. Ni banoan, erakusketa prestatzera. Hitzordua bihar dinagu, oker ez banaiz.

SAIOA: Ni osabaren atzetik noan. Emakume horrek gure bahiketan zer zerikusi duen jakin gura dinat.

Bat-batean alde egiteak sortutako erantzuna balekotzat hartuta, Rekalde aretora jo nuen. Erakusketarako azalpen testua amaitu eta lagin izango zen potreta beraiek erabakitzea proposatu nien, nik banuela aukeratua, baina ez ote zen egokiago kanpoko begirada batek hautatzea edonor erakartzeko modukoa. Bozkario handi barik onartu zidaten beranduegi nekarkien proposamena. Sormenak libre behar du, edozertarako. Artistoi onartzen zaigun diziplina eza aitzakiatzat hartuta agurtu nituen.

23

Mezua irakurri nuen mugikorrean. Zelal zen Turkiako Armadak Surucen preso hartutakoetako bat. PKKkoek baieztatu zuten. Aspaldi zebilzkion lakioa bota guran. Zelalen gudu zelaietako argazkiek kalte handia eragiten zioten Ankarako Gobernuari, Turkiako bombek txikitutako zibilen irudiek.

Kostatu zitzaidan ernegaldia naretzen. Zoritxarrak bete-betean jo ninduen, lanbroa gero eta trinkoago, argia gero eta ilunago.

Beste mezu bat... Bitorrena: egun bat aurreratu behar genuela hitzordua. 20:00etan Nardin.

Beste bi mezu... Baga: medikuarena, balizko ebakuntzaren Milwaukeeko ospitaleko aurrekontua bidali ziotela. Biga: Rekalde aretokoena, muzin egin ezin zioten AEBetako artista baten erakusketa proposamenari baietza emanik, nirea aurreratu egin behar genuela, ez banuen denbora laburregian erakutsi gura. Zack Vicente bahitu behar genuen egunaren bezperan inauguratzea iradoki zidaten.

Etxera jo nuen. Afruntu eta guzti ari zuen eurilangarra. Aterkia zarratuta makulu erabili nuen, beste

behin zalantzetaraino bustitzeak loa erraztu ziezadan. Biharamunean ebatziko nuen zer egin, biharamuna beste egun bat izango zen, bezperako zinak eta minak akordutik ezabaturik itzartuko nintzen, biharamunean izan behar da beti itxaropena, ez dago norbere buruari ziria sakon sartzea bezalakorik.

Kontatu didate erabakiren bat hartzeke urteetan geroratzen utziz gero, ametsoker bihurtzen zaigula, esna hartzen ez ditugun erabakiak lotan etortzen zaizkigula eskean. Loak hartu aurretik sumatu nuen eldarniotarako oskarbi zetorrela gaua, lagunmin berri eta guzti:

Jende multzo baten erdian nago. Denak gora begira daude, batzuk eskuekin begiei teilapea eginda, bestetzuk katalejoarekin zerutik behera handiagotzen ari den puntu beltzari. Multzoa samalda bilakatzen da, puntu beltza izan zitekeenari buruzko xuxurlak marmar, jakinmina ikuskizun. Kamerari objektibo laburra erantsi eta lepoa gora okertuekiko aurpegiei erreparatzen diet zaluki. Irria zain duten aurpegiak dira, zerutik datorkeen zorionaren peskizan. Harik eta garrasi luze batek isiltasuna ezartzen duen arte. Braustakoan samalda uxaldian desagertzen da atzera begiratu barik. Kamerari objektibo luzea atxiki eta zeruko pun-

tuari zuzentzen natzaio. Besapean aulkia dakar, erlojuan 9:20, behakoan, uste osoa. Astiro dator zerutik lurrerantz, presa barik. Dozenaka argazki ateratzeko beta ematen dit, objektiboa laburtzeko lain. Neureganantz dator, gainera datorkit, besoak zabal-zabalik. Azken hatsa entzun diot ezkerreko belarritik. Ozta-ozta saihesten dut.

Zipriztinak eskuetan, gorpu deboilatua difuminaturik, zintarrian utzi duen arrakalaren adarrak nabarmentzen ditut, kamera klarion. Detektibearen boligrafoko tinta gogortu egin da, forentseak dio urteak beharko dituela heriotzaren arrazoiak argitzeko. Kamerako pantailan argazkiak onirizten ari naizela, ohartzen naiz gorpua alboan dudala, neugaz batera argazkiei so. *Lan ona egin dun* diost. Sorbaldan ematen didan hirugarren kolpetxoarekin itzartzen naiz.

Ametsokerra dela dakit izerditan esnatzen naizelako eta, batez ere, egunetan aldean eroan ohi dudan arrangura sortzen didalako. Ametsokerrak dirauen egunetan erretratatu ditudan guztien erantzule sentitzen naiz. Urteetan egindako gerrako argazkien bildumetara atzera egiteko beharrizana izaten dut, eta ez naiz ausartzen, ez ditut berriz begiztatu gura, beldurra diot argazkiok sorraraz liezadaketen minari, izua diot

argazkiotako pertsonei ezertan lagundu diedan ez jakiteari, harro ezin aldarrikatzeari argazkiok egitea izan zela nire eginbeharra, sufrimendua erakustea ezinbestekoa dela ezin ulertarazteari. Ez dakit munduak guk erakutsi asmo genuen egia jakin gura duen ere. Baliteke gerra argazkilari izatea, neure buruari erakustearren badela ni baino okerrago bizi denik. Antzeko zeozer ziostan Bitorrek.

BITOR: Nik Vicente bahituta eta zuk argazkien bidez, biek ala biek erredentzioa beste xederik ez dugu.

ARANTZA: Argazkilari eta taxista ziztrin batzuk baino ez gara. Autonomo memelo gogaituak!

BITOR: Salbazioa.

ARANTZA: Ezabatuen zerrendari akabera eman gura diot.

BITOR: Lasai hiltzeko, inorekiko eta ezerekiko loturarik gabe.

Ezin izan nizkion Bitorri erakutsi Rekalde aretoko nire azkenaurreko erakusketan, bahiketaren bezperan inauguratu genuen hartan, ezkutuko mikrokamerekin bildu nituen argazkiak. Nik erregutu niena betez, inaugurazioan bilduko ginen ehun lagunetik gora: aktoreak, kazetariak, idazleak, musikariak, aktibistak, po-

litikariak, famosoak, izanguradunak... sentiberetan kriteriodunenak. Gomutatzekoak dira, paratu nituen 50 argazkiak ikusita, lehen kolpean izan zituzten erreakzioak. Arrazoia onartuko lidake taxistak, zalantza izpi barik.

Loaren bitsetan nengoen, mugikorrak Bitorren deia salatu zidanean. Ahotsontzian entzun nion, Zack Vicente zelan limurtu erakutsiko zigun andrazko bategaz elkartuko ginela bazkalostean Doloresenean. Sasoiz joateko, andrazkoak ez zuela astirik soberan.

Erakusketarako testua aldatzea bururatu zitzaidan:

Potretak
2010-2015

> Bistan da, apurka-apurka hondoratzea da bizitzea. Harrigarriki jasaten ditugun kolpeak, ustez kanpotik datozkigunak, ustez ahaztezinak diren kolpeak, ustez gertatzen zaizkigun oker guztien erantzule direnak, adiskideekiko hurbiltasun gehien sentitzean kontatzen dizkiegunak, horiek, ustez, ez digute arrastorik uzten, horiek desagertu egiten dira, ez zaizkigu gogoan iltzatzen, diotenez. Badira barru-

barrutik datozkigun zartakoak, babesteko beranduegi iruditzen zaizkigunak, harrezkero ez garela egundo izan ginena berriz izango konturatzeko balio dutenak. Plazera eta astia aztoratzea, horixe duzue erakusketa honen xedea.

Eta neure burua nekusan Rekalde areto leporaino betean, ofiziokideen aurrean, bi testuak leiturik bietako zeinekin identifikatzen ziren galdezka, mikrofonotik, lekuz kanpo, izerditan, begizuloak rimmel, Zack Vicente neuropsikiatrari Huntington gaitzaren sendabidearen egia erauziko geniola esan ezinez lehertzekotan, eta neure kolkorako gorde beharrean ozen galdetzen: *Altxa dezala eskua, nor ez da erakusketara bere burua erakustera etorri?*

24

Hiru bider entzun nuen etxeko txirrina.

ARANTZA: Arazoak ate joka?

SAIOA: Jakin al dun?, madama bategaz dinagu hitzordua. Limurtze eskolak emango ei zizkigun.

ARANTZA: Asmatu din hire osaba horrek zelan sartuko naizen suite inperialean. Beso banatan erakutsiko ditin Vicente jaunak garaikurrak.

SAIOA: Bazkalosteko hitzorduan kontatuko din.

ARANTZA: Eta hi zer hator, albistegiaren iragarki? Satorlanetan abila haiz, gero.

SAIOA: Gurasoak inguruan zebiltzanan kontatu didanean. Ez dinagu patxadaz jarduterik izan. Nolanahi ere, beste zerbaiten bila etorri naun.

ARANTZA: Hemen lugorria besterik ez zagon.

SAIOA: Egunotan goibel sumatu haut. Lagundu egin gura dinat. Bahiketakideak gaitun, lagun izan behar dinagu.

ARANTZA: Berandu ez ote den...

SAIOA: Zer dun? Glaukomak kezkatzen hau? Ebakuntza egin eta betiko ikusi!

ARANTZA: Hondoratzen ari naun...

SAIOA: Bi esku ditinat. Bategaz, osabari egia beretzat bahitzen lagunduko zionat. Besteagaz, porturako soka botatzen ahal dinat.

ARANTZA: Moldatuko naun.

SAIOA: Ez dinat uste. Utzi egidan...

ARANTZA: Ez dinat umemoko baten laguntzaren premiarik. Moldatuko naizela esan dinat.

SAIOA: Goazeman ohera. Kenduko dinat gorputza. Zama astunegia dun bakarrean eroateko.

ARANTZA: Zergatik haiz horren desordukoa?

Saioa bera ere harritu egin zen mihiarekin alua ferekatzen hasi zitzaidanean eragin zidan inarrosaldiagaz. Izarloka bat, lorgaitza izan ohi dugun gorputzaren ustekabeko abandonu horietakoa. Orgasmoaren osteko intziriak logurarekin bat egin arte luzatu zitzaizkidan. Nigandik ihes eginda sentitu nintzen, orbel. Badira eskierrak bezain zurrunak direnak, zoritxarrak barrua txikitu arren, kanpotik arrastorik ere erakusten ez dutenak. Negartiak baino abegikorrak dira, eta uste dute lagun hurkoak ere berdin jokatuko duela. Kamusadak erabat desegiten ditu. Garaituen patua da: zoritxarrak ez du atsedenik hartzen.

ARANTZA: Imazekin beste gozatu dun?

25

Flavia izena zuen Nardiko hitzorduan Bitorrek aurkeztu zigun andrazkoak. Berbakeragatik brasildarra, imintzioengatik bipila, isiluneengatik apala. Bitorrek aurkeztu orduko harira etorri zitzaigun. Gorroto zuela Fidel Imaz, estimu handian zuen nesketako bat haurdun utzirik, mututu ezean estraditatzea lortuko zuela esanez zemaitu zuenetik. Ez zen lehen aldia, oraingoan ez zion barkatuko, berdin zion Imazek euren aurka hari boteretsuenak mugiarazita ere, ez zen inoren koroapean belaunikatuko, nahiko zorrotz zuen labanaren ahoa.

FLAVIA: Eta zuek biok, badakizue gizonak zelan xarmatu?

SAIOA: Gura barik egin dut inoiz.

ARANTZA: Kontatu didate kasurik ez egitea dela eraginkorrena.

FLAVIA: Gure altzoetara datozenak bestela beteko ez lituzketen ametsak gugaz txortan eginda betetzen dituztela uste duten haur papar iletsuak dira. Baina fantasiak, umetakoak baino, helduarokoak dituzte, ikasiak.

SAIOA: Aberatsak dituzuela bezero uste genuen.

FLAVIA: Eskuarki bai, baina badira urtean behin gutxienez jatetxe garestietara lez datozkigun asko. Horiek dira asetzen errazenak.

ARANTZA: Eta usu doatzuzen maila gorenekoek, horiek ez dute fantasia berririk?

FLAVIA: Kasu horiekin. Dena probatuta, minak baino ez ditu asetzen.

BITOR: Flavia, harira joan gura nuke artez. Saioa eta Arantza Carlton hotelean sartzea lortu behar dugu.

FLAVIA; Arazorik ez, adiskidea dut hoteleko maizterren hornitzailea.

BITOR: Saioak eta Arantzak konpainia egin behar liokete suite nagusian ostatu hartuko duen ospetsu bati.

FLAVIA: Eta nor dugu izarra? Ez genuen Imaz kakaztu behar?

BITOR: Gero eta gutxiago jakin hobe. Ez zaitez arduratu.

FLAVIA: Baina Imaz gogor izorratuko duzue, ezta?

BITOR: Hondaleraino.

FLAVIA: Ongi da, nahikoa dut, zugaz fio naiz, Bitor. Goazen ba, eskolak eskolan ematen dira ondoen.

Ikasgaiak jasotakoan deitzekotan, General Conchako klubera bidean agurtu genuen Bitor. Langileak atsedenean zeudelarik arretatsuago hartuko genituen lezioak. Kamerarik sartzea galarazo zidan Flaviak, jakina zena ezagunegi egitea ere ez zitzaiela komeni argudiatuta. Eskaintzen zuten zuhurtziagatik ziren ezagun Flavia eta bere langileak dirudun mokofinen artean, ikusezinak izateak famatzen zituen.

Bitorrek esana, Laguna hiriko Morrinhos bazter-auzoan jaioa zen Flavia Ribeiro da Silva. Aita eta hiru nebak galdu zituen oso denbora laburrean. Ama, hilabeteetara. Hamabost urteko esposatu zen urte gutxian aberastutako abeltzain batekin. Berehala banandu ziren, liskarzale hutsa zen gizona Flavia jipoitzen hasi zenean. Banaketak utzitako diruagaz Zuzenbidea ikasteaz gain, Europarako bidaia txartela eskuratu zuen. Kale gorrian lanean hasi zenean ezagutu zuten elkar Bitorrek eta biek.

FLAVIA: Lehen ikasgaia: Miresten dituztenekin laketzen diren bezeroak dira gureak.

Hiru ordu laurdenetan erakutsi zizkigun suge liluratzailearen amarruak. Arnasa sakon hartu eta doinua sugea tente gura beste denbora mantentzea ez zitzaigun ezinezkoa suertatuko, hain gutxi bi xirulari izaki.

Imazekin erakutsi zuen grinaren erdiagaz Saioak berak bakarrik birloratuko zituzkeen Zack Vicente, John Paulson, bizkartzaina, Carltoneko zuzendaria eta aitasantuaren eskribaua. Flaviak atoan igarri zion dohaina. Saioaren zazpi marabillen aurrean, nire titi txiki, ipurdi estuak desiragarri bihurtzeak miraria zirudien.

FLAVIA: Ez kezkatu. Ezkutukoa da denok gehien irrikatzen duguna.

Bularrak harro papartu eta ipurdia ahateki kulunkatu. Gainontzekoa bere langileetako baten soineko sofistikatuaren eta Vicenteren Saioarenganako irritsaren kontu uztea besterik ez nuen. Beste bizitza bat, beste nortasun bat, lana, betebeharra.

Zack Vicenteri ez genion larrua jotzeko betarik emango, igurtzi batzuk izterretan gora, ferekak belarri gingiletan, sua piztuko genion taxian, garra hauspotu suite inperialean, baita erre orduko itzali ere. Luxuzko zerbitzua zen gurea, begirada nagientzat antzeman ezinezko arte lan faltsuak ginen: Burmako bi rubi. Flavia ez zen debaldetan madama. Vuitton zorro bana ere mailegatu zizkigun, zeintzuetan argazkietarako erabiliko nituen mugikorra eta mikrokamera gordeko genituen.

Berriro Nardin elkartu ginenean, Bitorrek askari oparoa zuen mahai gainean. Doloresek harridurazko keinua egin zigun, isilka mintzatu, Bitor ezohiko zegoela iragarriz. Bekozko, marmarti agurtu gintuen. Xingarra oratzeko zerabilen ezkerreko eskuak dardara luzea egin zion, ordura arte ikusia nionik larriena. Huntingtonen pauso hotsa gero eta hurbilago entzun zezakeen. Zack Vicente bahitu, gaixotasunaren sendabidea erauzi eta bizitza berri bati ekiteko egun gutxitara ginen. Funtzio bakarrerako hari guztiak neurrira finkaturik zituen Bitorrek, txotxongilook ez gintezen zangotrabatu. Baina zerbaitek aztoratzen zuen, hariren bat ondo lotu barik zegoen.

BITOR: Hemen duzue bahiketaren plana. Okertu barik betez gero, gizateriari egingo diogun oparia gogoangarria izango da. Ez ahaztu.

ARANTZA: Eta okertuko balitz?

BITOR: Orduan ere gogoangarria izango da, zin dagizuet.

SAIOA: Ezagutzen duzu Walter Benjaminen Historiaren aingeru beltzarena? Hegazkinen bonbek eraitsitako etxeak eta zatikatutako gorpuak bata bestearen gainean metaturik dakusa aingeruak. Nahi lituzke hondakinak berregin, hildakoak berpiztu, baina Para-

disutik datorren ekaitzak sortutako zurrunbiloa korapilatu zaio hegoetan eta ezin du hegan egin. Ekaitzak etorkizunerantz egiten dio bultza, hondakinen eta hildakoen metak zerua ukitzen duen arte.

BITOR: Zer gerta ere, ez naiz egindakoaz damutuko, Saioa. Okerrenera, hil baino ez.

ARANTZA: Baina, Saioa, ez duzu uste izango Vicente aipu filosofikoekin limurtzea, ezta?

SAIOA: Ez da, ba, munduko ikertzaile handienetako bat? Izango du kezka etikoren bat.

ARANTZA: Mamalia zer zara gero!

BITOR: Arantzak arrazoi du, egin ahalik eta berba gutxien. Zuek igurtzi ondo Vicente eta bestea utzi nire esku.

ARANTZA: Gu ere ez gaude lasai. Hil ala bizikoa da guretzat ere.

BITOR: Hemen neu naiz hilko den bakarra. Zuri diruak bermatuko dizu bizia. Prestatu ondo kamerak, teknologiak huts egiten du-eta gehien behar izaten denean. Bihar arte.

Banatu zigun bahiketari buruzko txostena besapean nuela irten nintzen azkenekoz Narditik. Saioak laguntzeko begirada zakurtxo deslaiarena egin zidan. Masailean musu emanda agurtu nuen. Ernegatuta

egoteko Bitorrek beste arrazoi banuen. Gerra argazkilari batentzat itsu geratzea ez da hiltzea baino samurragoa; zer uste zuen Bitorrek, bere zilborrean biltzen zirela munduko malur guztiak?

26

Besaulkian hartu ninduen loak txostenaren laugarren orrialdea amaitu baino lehen, urteetan errepikatu zaidan amets zital batean murgildurik. Tematia da amets gaizto hau, badaki beldurra baino, egunetan erantzi ezin izaten dudan larrimina sortzen didala eta lorik sakonenean erasaten nau:

Antzoki batean nago. Aulkiak belusezkoak dira jarlekuak bezalaxe. Ikuskizuna aurkezten hasten da banpiro bat. Ni eszenatoki azpian nago, belauniko kameraren objektibotik begira. Ilun dago, flasha behar dut. Publikoa soilik beira-fibrazko katamaloak janzten dituzten andrazkoek osatzen dute. Atzeoihala igotzen dute. Eszenatokiaren erdian autobus geltoki bat, autobus baten barrualdea eta gizon bat ageri dira. Gizon arrunta da, bakarrik dago. Autobuseko bere betiko lekuan jesartzera doala, beste norbait dagoela konturatu eta haren ondoan geratu da, zutik, begietara begira, nahiz eta autobuseko gainontzeko jesarlekuak hutsik egon. Ez dute berbarik egiten. Jesarrita dagoena altxatu eta beste jesarleku batera doa. Argiak itzali dira. Piztu dira berriz. Autobusak huts egin dio, ez da

agertu, eta gizonak munduan duen lekua galduko duela uste du. Eta leku horren bila abiatzen da. Atzeoihala aldatzen dute. Gizona hiri bateko plaza batean dago. Egunero hartu ohi duen autobusen antzeko mordo bat ikusten ditu. Burua bueltaka hasten zaio, inguru guztia bueltaka ari zaiola sumatzen du, zurrunbilo batean dagoela sentitzen du. Eszenatokira igo eta gizonari jarraitzen diot atzetik. Ikusten dituen autobus guztien erdiko ateen ondoan jesarrita daudenen parean, kristalak jotzen ditu eskuekin. Bat-batean, egunero lanera eroaten duen autobusa identifikatu duela iruditu zaio. Autobusa plazatik urrundu egiten da, gizona eta biok atzetik. Ahotik odola bota arte darraio gizonak autobusari. Atzeoihala aldatzen dute. Gaua da. Gizonak ez daki non dagoen. Alboetara begiratzen du. Errepide bat. Atzeoihala aldatzen dute. Egunsentia da. Gizona esnatu egin da. Errepideari begiratzen dio. Ez da inor ageri. Autobus baten gurpil arrastoak igartzen ditu asfaltozkoa ez den bide batean. Burua altxatzen du eta, aurrez aurre, autoen desguaze bat ikusten du. Autoei begira dagoela, autobus bati erreparatu dio. Maletina askatu eta korrika doa autobuserantz, alarauka letaginetan adur. Autobusaren ateak itxita daude. Maletinarekin jotzen du

kristala. Ez da apurtzen. Ukabilarekin jotzen du, ez da apurtzen. Buruarekin jotzen du, aurpegia odolez estali arte. Arrakalatu du. Soldadu besamotz bat sartu da eszenatokira. Odola garbitzen dio gizonari begien parean. Gizonak topeka darrai kristalaren kontra. Kostata apurtzen du. Kostata sartu da autobusean. Erdiko atearen alboko jesarlekuan jesarri da. Erlojuari begiratu dio, arnasa hartu eta irri egin du. Atzeoihala erortzen da. Kamerari begiratzen diot. Gero, publikoari. Katamaloagaz biluzik dauden emakume guztiak zutik jartzen dira. Katamaloak eranzten dituzte, denek aurpegi berbera dute. Argiak itzaltzen dituzte. Iluntasunari begira nago luzaroan, harik eta bukaerarik ez duen zulo batean amiltzen ari naizela ohartu eta arnasestuka esnatzen naizen arte.

27

Fidel Imazek ahots lakarrez jakinarazi zion Emilio Aberasturiri ia berrogeiko sukarrak lotzen zuela ohera.

FIDEL: Ezingo dut bezeroaren itsumutilarena egin. Badakit, bezperatan abisatzea putada galanta da, baina usten nuen egun pare batean sendatuko nintzela, horregatik ez dizut lehenago deitu. Barkatu, ez da berriz gertatuko. Haserretuko zinela nekienez, ordezko ezin egokiagoa lortu dizut. Taxi gidaritzan hamarkadak daroatzan gizon prestu eta konfiantzazkoa da, Bitor Larralde. Berba neurtukoa, aginduak betetzekoa, sekretu jagole itsumutugorra. Jakitun eta gertu duzu.

EMILIO: Hara, Fidel, lagunak gara eta zintzoa izango natzaizu. Zuzendari nagusia arduratuta dago, postaz jaso dituen argazki batzuek kezka handia eragin diote. Oraintxe bertan, enpresak zurekiko duen konfiantza kolokan dago. Zuk deitu aurretik ere, Zack Vicente beste gidari batek zerbitzatzeko agindu dit nagusiak.

FIDEL: Irudiak edo argazkiak, zer dira?

EMILIO: Argazkiak.

FIDEL: Ikusi al dituzu?

EMILIO: Ez, baina zuzendari nagusiarekin nengoen, hark begien aurrean erabili dituenean.

FIDEL: Eta zer esan du?

EMILIO: Afera konpontzea niri dagokidala. Eta horixe egin behar dut, Fidel, hileroko milaka eurotako soldata galdu gura ez baduzu, argazkiena albait arinen konpondu behar dugu. Bihar goizean hemen gura zaituztet ordezko gidari hori eta zu, lehen orduan.

FIDEL: Baina sukar honekin, ez naiz ohetik jaikitzeko gauza...

EMILIO: Bihar arte. Agur.

Fidel Imazek jakin bazekien Emilio Aberasturik ez ziola apatxa bitan sartzeko betarik emango. Atoan deitu zion Bitor Larralderi, tratua zergatik hautsi behar zuen jakiteko.

BITOR: Nik ez dizkiot argazkiak inori bidali. Beste norbaiten haserrean erorita egongo zara.

FIDEL: Bilbon inor ez litzateke ausartuko niri horrelakorik egiten. Ezaguna da Emilio Aberasturiren besoetakoa naizena. Gainera, oso gutxik dakite zein dudan benetako ogibidea, eta dakitenek ez lidakete mehatxurik egingo. Ez kontatzeko askoren lekuko izan naiz. Hogeita lau ordu dituzu argazkiak zure taldeko nork

bidali zizkidan argitzeko. Ostantzean Aberasturirenagana joko dut urretxindorrarenak kantatzera.

BITOR: Badakit argazkiena noren azpikeria den, baina telefonotik ez. Ordu erdian Olagortan.

Doloresenean kontatu zigun hori guzti hori Bitorrek. Eternoa egin zitzaidan ezkerreko eskuko dardara haren baretu ezina. Galdetu zidan bietako nork zergatik bidali zizkion Iberdrolako zuzendariari Imazen argazkiak.

BITOR: Enpresaren izen ona kakaztu eta, bide batez, Zack Vicenteren biharamuneko bahiketa lorrindu dezakete argazki horiek. Eskerrak Imazek sasoiz proposatu ninduen! Zer ostia duzu buruan?

SAIOA: Ahalik eta oilar gehien lumatzea, horixe! Imazek merezi zuen, kabroi alaena. Haren emazteak, Flaviak eta bere behargin izorratuek eskertuko digute. Doala infernura! Imazek bete du egitekoa, ez digu beste ezertarako balio, ez digu trabarik egingo.

ARANTZA: Esaiozu Imazi, aitortu dizugula geuk bidali ditugula argazkiak. Zack Vicente joan arte ez dute beste ezertarako betarik izango. Esaiozu prest gaudela zuzendari nagusiaren aurrean gure bekatuak konfesatzeko. Denbora irabaziko dugu.

Saioari Imazekin larrutan egin nizkion argazkiak oroitu nituen. Gogoan iltzaturik nituen gozamenezko bere imintzioak. Ez nuen fitsik esan, ustezko gezurkide ninduen. Mahaiaren azpitik ostikoa eman nion Bitorri, Rekalde aretora joan behar nuela-eta, itzuliko nintzela geroago esanez. Azeriki abegikor eskaini zidan bere taxia hitzordura garaiz iristeko.

Errebaletik behera azaldu nizkion Saioarenak.

ARANTZA: Garrantzitsuena esaten ez dena da, Bitor. Garrantzitsuena entzuten ez dena da, garrantzitsuena ikusten ez dena da, garrantzitsuena ez dena da. Saioa alaba duzu, aitatzat zaitu umetatik, ez duzue sekreturik elkarrentzat, ez zintuzke ezerengatik salduko. Zuzen neurtu du pauso bakoitza, zaude lasai.

BITOR: Baina plana izorratzeko egin du!

ARANTZA: Bai, zera! Gelditu taxia. Begiratu argazkioi.

BITOR: Ni bai kokoloa!

Eta barretxoa zabaldu zitzaion aurpegian, labankada baten odoljauzia begiradan.

Ezkutaketa jolas etengabea zen gurea.

28

Bahiketarekiko ardurak brausta erantzi nituen Rekalde aretora iristear nintzela. Galeriako zuzendaria eta komunikazio arduraduna atarian nituen zain, e-postaz bidalitako argibideekin nahikoa zela erantzun zidatelarik, ene oniritzia baizik ez zen falta: azalpen eskuorriak inprimaturik, potretak agindutako erreskadan, mikrokamerak frogatuta, gonbidapenak luzatu eta baiezkoak laburturik.

Masailetan laugarren musua eman ostean, komunikazio arduradunaren sorbaldari oratu behar izan nion ilunaldiaren ondoriozko zorabioaren eraginez lurrera ziplo ez erortzeko.

Tentsioa akumulatzen ari zitzaidan tai gabe. Ura, txokolatea eta fruitu lehorrak eman zizkidaten, larregizko lan zamak eragindako makalaldia zelakoan.

Bizkortuarena egin nuen, hain sinesgarri ezen komunikazio arduraduna gonbidatuen zerrenda irakurtzen hasi baitzitzaidan, sorpresa eta guzti. Azken unean, Iberdrolako Ignacio Galan, Emilio Aberasturi eta AEBetako bi gonbidatu berezi izango genituen.

Zuzendariak albotik eskerrak eman zizkidan erakusketa aurreratzeko erakutsi nuen prestutasunarengatik. Kontuan hartuko zuten etorkizuneko balizko elkarlanetarako.

Erakusketa nik e-postaz eskatu legez paratu zuten. Eskuorriaren diseinuak mina eta ukendua iradokitzen zituen, mikrokamerak antzemangaitz zeuden. Nardira itzultzeko moduan nengoen, baina aurrez etxera osteratxoa egin behar nuen Zelalekiko berrigosea asetzeko.

Zintarri ertzean taxi baten zain nengoela, Citroen C2 bateko leihatila zabaldu berritik gonbitea jaso nuen. Zuri baino zurbilago egin zidan Saioak barrurako keinua. Azeleragailua sakoneraino sakatuta abiatu ginen nire etxerantz.

Ez genion elkarri berba bakarra esan oinetakoak lanpasean garbitu zituen arte.

SAIOA: Fidel Imaz hil berri dinat.

Egongelako besaulkian eserarazi ninduen, bere eskuak oskol, nireak gorputz, dortokatuta, arnasa sakon hartuta aitortu zidan.

SAIOA: Oroitzapen oro desagerrarazi gura ziguten, populazioa produkziora eta iraganik gabeko orainera bideratu. Etorkizuna ezinbestekoa izan dadin, iraganik

gabea izan behar duela irentsarazten ari zaizkigun. Aurrerabide hau guzti hau duintasunaren kalterako dun. Historia bera zentzua galtzen ari dun. Ezin dinagu ohitu jakinaren azpian bizitzen. Akabatu egin behar ditinagu, lagundu egin behar didan.

Emakumeek buruturiko krimen pasionalak edozein gizartetako zapalduen askatasunerako nahiaren laburpena dira, milaka pertsonaren ezkutuko itxaropenaren oihua. Guatemalako emakumeen erailketak ikertzen zituen soziologo bati ikasi nion Ciudad Juarezen.

Memoria bozgorailu eske ari zitzaidan, baina une hartan hitza ukatu nion.

ARANTZA: Alde egin ezan hemendik. Mesedez, utz nazan bakean. Bitorrek eskainitako dirua glaukoma sendatzeko edo Zelalen askatasuna erosteko erabili, bietako bat erabaki behar dinat orain. Eta horretarako, Zack Vicente bahitu ez eze Huntingtonaren sendabidea zein den erauztea lortu behar dinagu, baldin eta diruaren bigarren partea jasoko badut. Vicente hiltzen badugu, dena zapuztuko dun. Pikutara dena! Ezingo dinat erailtzen utzi.

SAIOA: Bai, erabili egin haut. Maite haudala sinetsarazi dinat. Barkatu, baina berdin jokatuko nikenan

osabak bahiketarako kontratatutako beste edozeinekin. Ez eman ez duen garrantzirik. Hausnartu ezan, gure etorkizun aurrez programatua aldarazteko aukera bakarra dinagu, gure esku zagon geure ondorengoen biziraupena.

Fidel Imaz zelan hil zuen itauntzeko ez nuen denborarik galdu. Ez nion sinetsi. Dena tranpa handi bat bilakatzen ari zela pentsatu nuen. Iruzur bat, saldukeriaz mozorrotua.

Bekokian muin eman nion eta etxetik bidali nuen traidorea.

Ordenagailua isiotu nuen, Zelali buruzko berri bila. Haren kide baten mezua nuen postontzian. Zelalentzat betiko kartzelaldia eskatu berri zuen Ankarako Gobernuak, estatuaren aurkako krimenak egotzita.

29

Bitor esperoan genuen hamarrak jotzeko laurdena falta zela. Ardo beltza bi eskuekin oratzen zuen kopan. Goizeko 7:00etarako Iberdrola dorrean jaso behar zituen presidentea, Emilio Aberasturi eta John Paulson, Loiura Zack Vicente jasotzera abiatu aitzin. Fidel Imazi deika ari zitzaion, hitza bete eta Aberasturik Vicenterekiko gidari lanak egiteko mandatua egin ziola eskertzeko, baina erantzungailuagaz bakarrizketatzea baizik ez zuela lortu.

Flaviaren argibideak, telefono bat eta goitizenak ere banatu zizkigun. Bastet izango zen Saioa. Eta ni Anat.

Aberasturik ez gintuen gauerdia baino lehen erreklamatuko, baina 22:00etarako mozorroturik elkartuko ginen General Conchako bere lilitegian. Flaviak zehaztera, maila gorenekoenek itsusi ei zeritzoten elkarri aurrez aurre loberdatxurik behar zuten galdetzeari. Itaundu barik ere, negozio gizonen artean ohikoa zen gonbidatuak hotelerako taxian izatea canna indicak, orkideak, gerezi lore japoniarrak, hortentsiak, lanta-

nak, ixorak edo magnoliak lore-hautsa xurgatzeko prest.

Taxian lau izango ginen: Bitor, Flavia, Bastet eta Anat. Flaviak ezagutzen zituen Iberdrolako jaunskiloak, berak kitzikatuko zituen Vicenteren bizkartzaina bere altzoaren epeletan lokartzeko. Bilbon ez zen Carlton hotela baino gotorleku seguruagorik, Vicentek ez zukeen bizkartzain armatuaren beharrik.

Hogeita lau orduren buruan elkartuko ginen. Bitartean ez genuen deirik ere trukatuko.

BITOR: Galderarik? Zalantzarik?

SAIOA: Proposamen bat dut.

BITOR: Ez dago proposamenetarako aukerarik. Bahiketa neuk zehaztu bezala burutuko dugu, kito. Edo beste sorpresaren bat duzu guretzat gordea?

Saioak alde bietatik beteriko paper bana luzatu zigun.

Alde batean, antzinatetik erabilitako tortura modurik izugarrienen zerrendatik suite inperial batean aplikatu zitezkeenak zituen azpimarraturik.

Beste aldean, kanta bat:

Ez dezazula isiltasuna idealdu
Hitz egitea urrea da

Isiltasunean bizi dira
arratoiak eta izurritea
Ikusi zeinen isil jaten zaituen tumoreak
Hor alferrik dira hitzak
Ez dezazula uste
borreroa solasten denik urkatzekoarekin
Ez dezazula uste
kisteak egunonak ematen dituenik
Ez dezazula uste
maitasun ezak bere hustasuna aitortzen duenik
Ez dezazula uste
balak eztabaidan aritzen direnik
Uste duzu sokak
negar egiten duela?
Uste duzu somniferoek
hasperen egiten dutela?
Ez dezazula uste
gizakiak erabakiak hartzen dituenik
arratoiek mihia jan diotenean
Uste duzu txarrantxak
balio duela gramofonoko orratzerako?
Ez dezazula uste
ezer hazten denik isiltasunaren baitan
ez bada isilen isila

Bitorrek zorrotz begiratu zion Saioari, papera mila zatitan txikitzen zuen bitartean.

BITOR: Inoiz ez bezala behar zaitut orain, Saioa. Ez egidazu hutsik egin!

Rekalde aretoko komunikazio arduradunaren deiari erantzuteko Narditik lekora atera nintzen. Ez dakit zer gertatu zen kanpoan nintzen artean.

Bitorrek alde batera egin zuen, Saioak bestera. Mercedes 320ak eta Citroen C2ak kontrako noranzkoa hartu zuten.

Oinez etxeratu nintzen, euri-haizeak tangadaka zekarzkidan oroitzapenak orrazten. Aita hil osteko egunetan amak lotarakoan kontatzen zizkidanak oroitu nituen. Gure auzoan, emazteari biluzik ehunka argazki egin ostean, bere buruaz beste egin zuen argazkilaria bizi izan omen zen. Senarrari gutun anonimoetan benetako sentimenduak aitortzen zizkion emaztea ere izan omen genuen auzokide. Akordatzen naiz amak askotan kontatu zidala haurdun geratu zen emakumearena, senarrak komuneko ateagaz sabelean kolpea jota galdu zuela umekia. Zesarea egin zioten eta hildakoa bizi baten truke aldatu. Senarrak maitalea

zuela salatu zioten. Ez zion sekula ezer aurpegiratu, ordezko alaba ken ez ziezaion.

Oker ez banago, etxerako bidean ez nuen oroitzapen samurragorik izan.

Saioak Zack Vicente hiltzea ekidin behar nuen. Bitorrek, lana amaitu osterako, promestu baitzidan glaukoma sendatzeko edo Zelal heriotza zigorretik libratzeko premiazkoa nuen dirutzaren bigarren zatia.

Hamar bat ordu nituen, edo loari edo erabakiari eskaintzeko.

30

Akiturik esnatu nintzen. E-posta irakurri nuen gosaldu bitartean. Begiak mingor nituen lehena amaitzerako. Zelalen burkideak kontu korronte baten zenbaki andana bidali zizkidan. Azaldu nion biharamunera arte ezingo nuela dena batera bidali, sartuko nuela nire borondate ona erakutsiko zuen kopurua, lehen zatia, egin zitzala moduak militar-epaile ustelak konbentzitzeko.

Ezin nion Bitorri deitu, ezin nion erregutu bigarren zatia aurreratzeko, maitearen bizitza zegoela jokoan, ez niola hutsik egingo, beti paratuko nintzela bere alde. Inpotentziak hamar minuturako ilunaldia sortu zidan. Telefonoak jo zuen lurrean botata nengoela. Rekalde aretoko komunikazio arduraduna zen. Hainbat komunikabide elkarrizketa eskean zebilzkion, arratsaldeko inaugurazioa eguneko hitzordu kultural saihestezintzat saltzeko limurtu zituela eragin handieneko kazetariak. Baietz, prefosta, erantzungo nituela galderak, baina telefono bidez, gau txarra pasatu nuela, kamera aurrean agertzeko itxuratxarturik nen-

goela, bazkalosteko lo-kukuak berrindartuko ninduela gonbidatuen aurrean aurkezgarri egoteko eran.

Banketxe batera joatea, horixe izan zen egin nuen lehendabiziko gauza. Zelalen burkideak bidalitako kontu korronte zenbakian sartu nuen neukan dirua. Bitorrek emandako sobre berean luzatu nion leihatilaz bestaldeko langileari. Begiak zarratu nituen zelan zenbatzen zituen ez ikusteko.

Nardira joatea izan zen bigarren gauza. Doloresek esan zidan Bitorrek 6:30etako kafeari huts egin ziola, bere Mercedesa ez zegoela betiko lekuan aparkaturik, menturaz ez zuela gaua Errebalen eman.

Hiriko taxi geltoki guztiak korritu nituen, taxista mordoari galdegin nien, inork ez zuen bezperatik ikusi. Mesfidatzen hasita nengoen, bahiketatik onik irteteko aukera herenera murrizten hasita nekusan. Poliziarik lerdoenak ere gurutzegramak betetzeko denbora beharko zukeen Zack Vicente Bitor Larraldek bahitu zuela ondorioztatzeko. Daborduko jabetua nintzen bahiketa okertu egingo zitzaiguna.

John Paulson, bahitugaiaren itsumutil adiskidemina!, Bushen ministro ohia! Ez neukan beste aukerarik. *El Correo* egunkarirako argazki sorta eskatu zidanaren

bitartez Paulsonegaz berba egitea, hori izan zen egitekoa nuen hirugarren gauza.

ARANTZA: Arantza Ojanguren naiz, argazkilaria.

IDAZKARIA: Ez zaizu iritsi argazkien diru ordaina?

ARANTZA: Bai, arazorik gabe. Baina, orain, John Paulsonegaz berba egiteko zer egin behar dudan jakitearren deitzen dizut.

IDAZKARIA: Sentitzen dut, aireportura bidean da. Pertsona ospetsu bat jasotzera joana da.

ARANTZA: Esango diozu, mesedez, niri deitzeko?

IDAZKARIA: Ez da posible. Gero ere ezingo dizu deitu. BECen burutuko den nazioarteko mintegi batean parte hartu behar du.

ARANTZA: Haren egiteko guztien jakitun zaude?

IDAZKARIA: Bilbon den bitartean idazkari lanetan ari natzaio. Ezin dizut ezer kontatu.

Etxera itzuli nintzen. Dutxa bat hartu nuen, entsalada bat jan, eta arropak aldatu.

Erakusketaren ordua iritsi zen. Taxi gidariagaz adostu nuen, Juan Ajuriagerra kalean bertan elkar gintezen berriz erakusketaren aurkezpena amaitu ostean, 21:30ean.

Kazetariz enpo zegoen Rekalde aretoko ataria. Komunikazio arduradunak atoan kokatu ninduen mikrofono eta kameren aitzinean.

KAZETARIA-1: Zer deritzozu Vicente doktoreak goizean BECen iragarritakoari?

ARANTZA: Barkatu, erakusketaren antolamenduak arreta guztia bereganatu dit. Zer iragarri du ba?

KAZETARIA-1: Arratoiekin, txerriekin eta zakurrekin frogatu ostean, gizakien organo hilak berpizteko sendabidea aurkitu duela. Zure erakusketara etorriko da, zer deritzozu?

REKALDEKOA: Mesedez... Ojanguren andereari ezustekoa eman gura genion, ez daki Vicente doktorea erakusketara etortzekoa dela.

KAZETARIA-2: Erretratua egiteko baliatuko duzu bisita?

KAZETARIA-3: Vicente doktorearen aurkikuntzak eta zure erakusketak zerikusiren bat dutela uste duzu?

KAZETARIA-4: Zure argazkietan gerrek eragindako sufrimendua erakusten duzu. Vicente doktoreak heriotzari aurre egiteko osabidea aurkitu du. Hitz egingo duzue lotura horri buruz?

ARANTZA: Ez dut Vicente doktorea ezagutzen.

Gonbidatuei harrera zor niela argudiaturik aldendu nintzen zaparrada hartatik.

REKALDEKOA: Barkatu, Arantza. Kazetari horrek dena izorratu du. Sorpresa eman nahi genizun, erakusketarekin izugarri pozik gaudela adierazi. Denak etorriko dira, ez da inor faltako. Zorionak.

Sasoi batean uste osoa nuen pentsamendua isiltasunean garatzen zela ondoen. Solaskide nituenak gai zirela pentsatzen nuena entzuteko, gai zirela nire argazkiekin solastatzeko, ez nuela hizkuntzaren beharrik. Erakusketa areto oraindik jenderik gabean sartu nintzen. Argi ahul banak gaztigatzen zituen 50 erretratuak. Bitorren erranairuaz akordatu nintzen: *Ez gara dena ahazteko nahikoa biziko*.

Komunikazio arduradunari keinua egindakoan zabaldu zituzten aretoko ateak. Han nintzen ni, erdi-erdian, aretoko zuzendaria aurkezle, gonbidatuak banan-banan agurtzen. Amaiera bakoa begitandu zitzaidan politikari, kirolari eta ospearen bizkarroi orotarikoen erreskada, erregearen etorrera iragartzen zuten tronpetak entzun arte. Han zen Zack Vicente, han zen John Paulson, bertan Galan eta Aberasturi, bertan lekuko dozena erdi telebista kamera.

ZACK: Zorionak, asko miresten dut zure lana. Bilduma bikaina da, oso ederra. John, emaiozu gure telefonoa, AEBetan erakustea aise lor genezake. Giza jendearen sufrimenduaren berri zabaltzen lagunduko dizugu.

31

Taxia zain neukan Ajuriagerra kalean. Eta General Conchako lilitegian zeuden Flavia, Saioa eta Bitor, ni noiz iritsiko esperoan.

Bitorrek ez zuen zirkinik ere egin Zack Vicentegaz ordubetetik gora parez pare egon nintzela jakinarazi nionean. Flaviari begiratu zion. Madamak jakituriaren irriñoa trufari.

FLAVIA: Vicentek ezagutzeko eran mozorrotuko zaitut. Erregeak olgeta zaleak dira beti.

SAIOA: Arriskutsuegia da. Eta desira beharrean arbuioa eragiten badiogu? Hari finegia da ez erortzeko.

FLAVIA: Aztoratzen bada neuk ekarriko dut bere onera, lasai. Orain goazen, ezin erakargarriago magnoliatuko zaitut.

Gu itxarongelan utzita eroan zuen Flaviak Saioa.

Bakarrik geratu ginen Bitor eta biok.

ARANTZA: Hau zorakeria bat da! Saioak Fidel Imaz hil duela esan dit. Eta Zack Vicente ere hiltzeko asmoa du...

BITOR: Ez naizela kokolo bakarra, ederki erabili gaituela gure filosofogaiak. Eskerrak arean ezagutzen dudan.

ARANTZA: Nik ezingo dut Vicente limurtu. Aktore oso txarra naiz, atoan igarriko dit.

BITOR: Gerra argazkilaria zara. Moldatuko zara.

Flaviari dei egin eta Bitorrek eskatu zion lilizain nahikoa indartsurik ba ote zeukan Saioa logela barruan biharamunera arte gatibutan giltzapetzeko.

Eta handik aurrera dena gertatu zen tximista baten dirdaia baino bizkorrago. Inork ez luke esaten asmatuko benetan zer antzeztu genuen.

La Casa del Bandidoren ataurrean jaso genuen Zack Vicente, 24:00ak jotzear zirela.

ZACK: Baina... zer da hau? Zer egiten duzu zuk hemen? Zer gertatzen ari da?

Saioak arrazoi: Vicente, neu nintzela jabetzean, sumenditu egin zen. Bitorren alboko eserlekutik Flaviak amultsuki iradoki behar izan zion suite inperiala zain genuela, ez narrasteko taxi ziztrin bateko atzealdean, beratzeko, hamar minutu baizen ez zirela.

FLAVIA: Lasai, laztana. Jolasa baino ez da. Goza ezazu!

Atzeko jesarlekuetara etorri zen Flavia, Vicente eta bion aldamenean kukuturik. Bitorri hotelera abiatzeko agindu zion. Belarrira xuxurlaka baretu zuen doktore artegatua.

Planari jarraiki, Bitorrek, bidaiariok Carlton hotelaren atarian utzita, aparkalekura egin zuen.

Flavia ezaguna bide zuen mandatumutilak, madama agurtu baitzuen. Gero, begiak kliskatu eta desagertu egin zen.

Vicentek, besotik oratzeko gonbitea egin zidan, mandatumutilari suite inperialerainoko bideaz galdegiten zion bitartean.

Hoteleko zuzendariak, harremanetarako idazkariagaz batera, gau gozoa opa zigun, suitean sorpresa bat zain genuela iragartzeaz batera.

Mandatumutilak alde egin zuen unean bertan iritsi zen Bitor suitera, Vicentek ustez taxian utzitako karpeta besapean.

BITOR: Hau ahaztu duzu, jauna.

ZACK: Nik ez diat ezer ahaztu! Eraman ezak!

Kolpe bakar batez bota zuen doktorea lurrera.

Han zetzan Zack Vicente, suite inperialeko alfonbra pertsiarraren gainean, narrutsik, eskuak eta hankak lotuta, ahotik kokotera zapia, hain babesgabe,

hain ezdeus, hain irrigarri nire kameraren begipuntuan.

Betazalak erantzi nituen lehenik, ileordea ondoren.

Bitorrek diruz betetako pakete bat eman zidan.

BITOR: Hortxe daukazu dagokizun bigarren partea.

ARANTZA: Ez dut lana amaitu, galdeketaren argazkiak falta dira.

BITOR: Zoaz, sendatu begiak eta kontatu egiezu egia.

ARANTZA: Oraindik ez. Erantzuna aterako diozun unea gorde behar dut. Zer egingo dut amaierarekin, amestu?

BITOR: Norbaitek akorduan hartzeko modukoa izan dadila. Zerbait asmatuko duzu.

ARANTZA: Esadazu gutxienez zein den egingo diozun galdera bakar hori.

BITOR: Gorde gaitzatela gomutan. Ikusi arte.

Buruko ileetatik arrastaka eroan zuen Zack Vicente suite inperialeko gela nagusiaren erdiraino, diamante itxurazkoekin apaindutako lanpara erraldoiaren azpira.

Olatu bare baten antzera zabaldu zen odola Isfahango zetazko alfonbran alderik alde ebaki zion lepotik.

Eta azkenean, Carlton hoteleko balkoi historikotik behera egin zuen salto, Jose Antonio Agirreren eta Telesforo Monzonen artetik, hain zuzen.